

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Presoenak ez du kausa galduen
zerrendan tokirik

RAMON SOLA > 11

ANALISIA, KATALUNIA: > 12

Prozesua eta «prozesismoa» AITOR AGIRREZABAL
«Molt Honorable Senyor Mas» MIKEL ZUBIMENDI

2016ko urtarrilaren 16a | X. urtea • 451. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



KOLONIA SEXU ERASOEN ETA
ARRAZISMOAREN KONTRA

GABON ZAHARREAN KOLONIAN GERTATUTAKO SEXU ERASOEK HAINBAT SU PIZTU DITUZTE;
ERREFUXIATUEK EMAKUMEEI ERASO EGITEN DIETELA ESATEN DUENA ETA ERASO HORIEK ARRAZISMOA
AREAGOTZEKO ERABILTZEN ARI DIRELA DIOENA, BESTEREN ARTEAN. > 4 Roberto PFLEIL | AFP

Analisia: Erasotzaileak atzerritarrak direlako 04

Ikusmira: Gosea bera ere gerra arma da Sirian, alde guztiena gainera 07

Palestinarrak antolatzen hasi dira etxea bota dietenei laguntzeko 08

Kataluniako prozesuaren gaineko bi begirada 12

Pentsatzen lagundu, haurrak filosofiara gerturatzeko 17

Elkarrizketa: Raquel Arbosa eta Felix Lucas, Dravet Syndrome Foundation 22

In Fraganti: La Basu, rap abeslari bilbotarra 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iratxe Urizar:** Mapatik at
- 10 **Unai Fernandez de Betoño:** Polarizazioa Nafarroan
- 11 **Ramon Sola:** Presoenak ez du kausa galduen zerrendan tokirik
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Gorka Zozia:** Eta orain, Antropozenoa!
- 21 **Garazi Goia:** Alter egoak
- 27 **Maidor Iantzi:** Kontrabandoan zoriona pasa
- 27 **Xabier Mikel Errekondo:** Cristina Borboikoa eta Iñaki Urdangarinen birgizarteratzea
- 30 **Iratxe Esnaola:** Androiden monopolioaz



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } Iratxe Urizar

Mapatik at

E rrealitate ukaezina: berandu gabiltza. Argi dago Estatuko indarrek hildakoek ez dutela dagokien aitortza instituzionala jaso (hildakoe horiek gogoratzea zuzenean kriminalizatu ez dutenean). Are gehiago, lege eta barematze korapilatsuen anabasa bihurtu da eztabaida: arazoa kuasi-dialektikoa izatera heldu da, funtsezkoa beharrean. Hierarkizazio garbia ere badago: batetik, indemnizazioa eta erakundeen aitortza jaso duten terrorismoaren biktimak daude; bestetik, indemnizaziorik ez, baina konpentsazioa jaso dutenak (GAlek eraildako senitar-tekoak, gaur egun hori ere ukatu nahi dieten arren); beste alde batetik, inoiz inolako aitortzarik jaso ez duten terrorismoaren biktimak daude (GAlen atentatu batean eraildakoaren emazte edo seme-alaba zaurituak, esaterako). Hortik aurrerako sailkapenak, ordea, lausoagoak dira, baina jarraitu egiten du kontuak, hala ere: “kontraterroismo ez-zilegiaren” biktimak daude (biktima bera da gertatu zaionaren arrazoi eta jatorria, nahiz eta pairatutakoa zilegi izan ez); edo aitortza jaso arren, kalte-ordainik jaso ez duten biktimak.

Nahas-mahasa hori guztia nahikoa ez eta orain biktima mota berriak sortzen dira, ahaleginak kontrako norabidean jarritz, beraz. Memoriaren Mapa sortu dute, sailkapen ulertezinetan sakontzera bideratutako gobernu ekintza. Badaude bertan baino ez dauden biktima batzuk (hau da, beste inon agertzen ez direnak). Bukatzeko, inon ere agertzen ez diren biktimak daude, ezta Memoriaren Mapa horretan ere. Azken horiei buruz ariko naiz, izen-abizenak dituzten biktimak direlako, haiek ere aitortza behar dutelako –ez memoria, ez baititugu ahaztu–: Aias-tui, Ojeda, Xenki, Murgi, Zeberio... eta beste hainbat.

Mapa honek ez du inor mindu nahi baina gure herriak duen errealitate eta iragan mingarriarekin, zaila dirudi egitasmoa arrakastatsua izatea. Lortu dute, bai, bi bando-tako biktimak izatetik, ekuazio aritmetikoaren itxura hartzen ari den sailkapen batera igarotzea.

Estatu askok baliatu dute “hiltzera tiro egitearen” politika aski ezaguna terrorismoaren aurkako borrokan, baita gaur egun ere. Gurea ez da salbuespena. Baina ez da bidezkoa giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea edota nazioarteko zuzenbide humanitarioa aitzakia gisa jartzeari gauzak egin beharko liratekeen moduan ez egiteko. Aitzitik, tresna horiek gaiok bideratzen laguntzeko sortu ziren, aitortzarako eta erreparaziorako baliabideak eskaintzeko, eta ez kontrakoa egiteko. Nazioarteak kezka larria agertu du estatuetakoko segurtasun indarren krime-

nen kasuetan. Nazio Batuen Erakundeak aditu edo esatari berezia ere jarri du exekuzio sumario, arbitrario eta epaiketaz kanpokoetarako. Horrez gain, Nazio Batuen Asanblada Orokorrak garrantzi handia eman dio kontu-emateari, horrelako gaien inpunitatearekin amaitzeko tresna gisa, eta adierazi du horrelako erailketek larriki bortxatzen dituztela giza eskubideen nazioarteko arauak.

NAZIOARTEKO LEGEDIA ZERTARAKO ERABILI

Baina zer dira, bada, exekuzio sumarioak? Ez dago zalantzarako tarte handirik: Estatuko agenteek eraildako biktima zibilei dagokienez, kasu guztietan hartuko dira exekuzioa sumariotzat. Militanteen kasuan (*combatients*, nazioarteko hizkeran), exekuzioa sumarioa izan dela joko da baldin eta militanteak zaurituta egonda, errenditu eta gero, harrapatuak izateko erraztasunak eman ostean edota arriskutsuak ez direnean (armarik ez dutelako, jarraipena egiten dietelako eta armak erabili gabe atxilotu ditzaketelako...) hiltzen badituzte. Edozelan ere, indarra-
ren proportzionaltasun printzipioa nagusitu beharko litzateke; indarkeria erabiltzea saihestu ahal bazen, hala egin behar zen. Bestela, epaiketaz kanpoko exekuzio baten aurrean egongo gara, zuzen-zuzenean. Esatariek diotenez, horrelakoak gizateriaren aurkako krimenak izan daitezke eta, beraz, ez dute preskribatzen.

Nazio Batuez gain, Estrasburgoko Auzitegiak berak zigorra ezarri zion Estatu ingelesari, “McCann vs. Erresuma Batua auzian”; IRAko kide batzuei Gibraltarrera sartzen utzi zieten, bertan lehergailuak jarriko zituztela susmoa izanda ere, eta, atxilotu ordez (hainbat aukera izan bazituzten ere), erail egin zituzten.

Bilbotarra naizen aldetik, burura datozkit Jose Miguel Bustinza eta Gaizka Gaztelumendi, 1997an erailak Bilbo-ko Laguntasun kalean. Tiroz josita akabatu zituzten, auto batean sartzera zihoazela. Aspaldi ari omen zitzaizkien zelatan, eta bazegoen aukera haiek atxilotu eta epailearen aurrera eramateko. Lekukoek egiaztatu zuten mil-
itanteek ez zuten tiro egin. Memoriaren Mapan, ordea, haien arrastorik ez.

Memoria kolektiboa eraikitzeaz ari gara. Horretarako borondatea badago, egin egingo dugu; ez badago, hala esan beharko genuke, argi eta garbi, nazioarteko legeetan ezkututzen ibili ordez. Izan ere, legeria horiek lagundu egingo ligukete errelato kolektibo osatuagoa zirribor-
tzen, gure gertuko iraganaren parte bat ezkutatu edo kanpo utziko ez lukeen mapa bat egiten. •

Orain Memoriaren Mapa sortu dute, sailkapen ulertezinetan sakontzera bideratutako gobernu ekintza

{ analisis } Maria Gonzalez Gorosarri - Kazetaria eta ikertzailea

Erasotzaileak atzerritarrak direlako

Gabon zahar eguneko ospakizunetan, gauerdiaeren bueltan, jendetzak Koloniako plaza (Alemania) hartu zuenean, zenbait emakumek sexu erasoak salatzen zituen eta Poliziak erasoak errefuxiatu musulmanei leporatu zizkien. Gertatutakoari heltzeko bi joera nagusitu dira Alemanian: alde batetik, errefuxiatuek Alemaniako emakumeei eraso egiten dietela dioen ustea, eta, bestetik, emakumeen aurkako indarkeria errefuxiatuak kanporatzeko erabiltzen ari direla salatu duen mugimendu feminista.

Hedabideek Alemaniako gainerako hiri handietan gau horretan ere egondako beste salaketek buruzko albisteak eman dituzte, errefuxiatuek Alemaniako emakumeei taldean eraso egiten dietela adierazteko. Berlinen, adibidez, Brandeburgoko Atean atxilotutako bi gizonen berri eman dute: bata, irakiarra, eta, bestea, pakistandarra. Berlin moduko hiri handi batean, jaia dakarren gau luzean sexu eraso gehiago gertatuko ziren oinarri sendoa dago. Are gehiago, lanegunetan emakumeen aurkako eraso gehiago daudela dokumentatuta dago.

ERREFUXIATUAK ALEMANIARA DOAZ

Siriako gerraz geroztik, Alemaniak errefuxiatu uholdeak jaso ditu, Europako egoera ekonomikorik onena duelako. Datu ofizialen arabera, 2013an 100.000 lagunek Alemanian bizitzeko baimena eskatu zuten, eta, 2014an, 200.000 lagunek. Horregatik, Angela Merkel errefuxiatuak Europar Batasuneko gainerako herriekin banatzen saiatu da. Alemaniak 2016an errefuxiatu kopuru «handiegia» jasoko duela aurreikusten zuela

Siriako gerraz geroztik, Alemaniak errefuxiatu uholdeak jaso ditu. Herritarren zati bat «ongi etorri kultura» zabaltzen saiatu bada ere, parean topatu ditu Pegida moduko mugimendu arrazistak. Gabon zahar gauean Kolonian gertatutako sexu erasoen ondorioz berriz jarri da lupa migratzaileen gainean. Zein intentziorekin?

esan zuen («800.000 asilo eskari aurreikusten dira», Alemaniako Migrazio eta Errefuxiatuentzako Zerbitzua, 2015/08/19). Horrela, uda osteko Europar Batasuneko batzarra berotu zuen: irailean gainerako herrialdeek hartu beharreko errefuxiatuen kuotak zehaztu nahi izan zituen

Alemaniako kantzilerrak Bruselan («*Los países de la UE no lo gran acordar el reparto de 120.000 refugiados más*», «La Vanguardia», 2015/09/15).

Alemaniako agintariek ez dute ezkutatu errefuxiatuak gutxitzeko asmoa dutela. Hasteko, asiloa eskatzeko prozedura ne-

kosoegia da. Errefuxiatuek aurkitzen duten hurrengo traba, gainera, lan egiteko baimenik ez lortzearena da. Gero, etorkinak kanporatzeko politikan sakondu du Gobernuak: «*Alemania levantará centros para acelerar la expulsión de inmigrantes*» («El País», 2015/11/05). Orain, errefuxiatuek emakumeei eraso egiten dietela esandakoan, legea gogortu dute («Koloniako erasoen ondoren Alemaniako Gobernuak lege-hausle atzerritarrak arinago kanporatuko ditu», «Der Spiegel», 2016/01/12). Hala ere, kanporatzeko aurreikusi dituzten lege-hausteak ez dira sexu erasoak bakarrik, lapurretak eta poliziari aurre egitea ere bai. Baina lege hori indarrean sartu aurretik, Alemaniak dagoeneko etorkinak kanporatzeari ekin dio («*La policía alemana confirma el aumento de las devoluciones de refugiados a Austria*», El-diario.es, 2016/01/12).

FAXISMOAREN ARRISKUA

Alemaniako herriaren zati batek errefuxiatuekiko «ongi etorri kultura» zabaldu bazuen, politikariek ez dute haien egoera erraztu. Asiloa eskatzeko prozedura lar luzea da, bulego gutxietan zentralizatu da eta ilara handiegiak eragin ditu. Herritarrak antolatu dira udan ilaran zain zeuden errefuxiatuei ura emateko, eta, neguan, arropa beroa.

Herriaren beste zati batek eraso arrazistak areagotu ditu. Alemania osoan, astean behin errefuxiatuentzako etxe bati sua ematen diote talde naziek, baina Gobernuarentzat hori ez da oraindik arazo nazionala, tokian tokikoa baizik. Aldi berean, Pegida moduko mugimendu arrazistak sortu dira.

Nazismoaren garaipenetik, Alemanian faxismoak bi unetan

gora egin du: 1990eko hamar-kadaren hasieran eta orain. Hortaz, 1933ko nazismoaren antzera, faxismoaren berpiztea krisialdi ekonomiko baten harira etorri da.

Lehenengo eta behin, bloke sobietarra jaustean, Alemania biek bat egin zutenean, aurreko urteetan Alemaniara heldu ziren 40 etorkin turkiar hil zituzten neonaziek 1990eko hamarkadan. Orain, Europak 2007ko krisialdi ekonomikoan sartuta jarraitzen duela, gerratik alde egiten duten lagunek neonazien erasoak jasotzen dituzte.

Kolonian emakumeak jazarri zituzten gizonak errefuxiatuak zirela zabaltzean, neonaziei aitzakia eman zieten. Astebetean, adibidez, Pegidak bi manifestazio deitu ditu jada. Are gehiago, bere burua emakumeak babesten dituen talde bezala definitzen hasi da Pegida. Izan ere, ideologia neonaziaren zutabe bat kanpotarrekiko gorrotoa da, baina bigarren zutabea emakumeak menderatzea da. Faxistek ez dituzte emakumeon eskubideak defendatzen, atzeritarren erasoak bakarrik salatzen dituzte.

EMAKUMEEN AHOTSA

Agintariak, esan bezala, legea gogortu dute eta emakumeak babesteko aholkuak eman dituzte. Koloniako alkateak, adibidez, «gizon susmagarriengandik beso bateko distantzia» mantentzeko gomendatu du. Jendarteak, gainera, manifestazioekin gaitzetsi du emakumei eraso egitea. «Pegidak emakumeak babesten ditu» zioen pankartarekin abiatu zen domekan mobilizazioa Kolonian, baina aurreko egunean «indarkeria matxistaren eta faxisten



Goiko argazkian asteotan Kolonian izandako protesta feminista bat. Pankartak dioenez, «sexistak eta arrazistak ergelak dira toki guztietatik begiratuta». Behean, Pegidaren manifestazio bat. Roberto PFLEIL - Tobias SCHWARZ | AFP

aurka» mobilizatu ziren mila-ka emakume Kolonian bertan. Hala ere, agintariak ez dute emakumeen ahotsa entzun. Hedabideek ez dute emakumeen ahotsa jaso.

Emakumeen ahotsa emakumeek eurek zabaltzea behar izan dute. Zenbait feministak Aus-

nahmslos («salbuespenik gabe», alemanez) ekimenean parte hartu du: ez dute nahi Kolonian pairatu dituzten sexu erasoak interes politikoen arabera erabiltzea. Emakumeen aurkako indarkerian gizon atzeritarrak bertakoak bezain errudunak direla azpimarratu

dute. Are gehiago, Kolonian jatorri arabiarra zuten emakumeak ere eraso zituzten. Kanpoko gizonak Alemaniako emakumei eraso egiten dietela ezeztatu nahi izan dute, jatorri alemaneko gizonak ere erasotzen dituztelako eta jatorri arabiarreko emakumeak ere jomugan daudelako. Hortaz, nazionalitateari erreparatu beharrean, emakumei eraso egiten dieten gizonak identifikatzeko eskatu dute.

«Indarkeria sexistaren eta arrazismoaren aurka. Beti. Nahi» leloarekin, Ausnahmslos ekimenak neurri zehatzak eskatu ditu. Lehenik eta behin, agintariak, sexu gehiegikeria lege-haustea izateko exijitu diete. Orain, emakumeek salatu ezean, sexu gehiegikeria ez delako lege haustea. Kolonian bi bortxaketa salatu ziren eta gainerako 300 bat salaketak sexu gehiegikeriak identifikatu zituzten. Koloniako emakumeek (jatorri europarrekoek zein arabiarrekoek) sexu erasoak salatzeako determinazioa agertu arren, salaketa horien bide prozesala ez da batere argia. Horregatik, Merkelek kalean polizia gehiago ipiniko duela iragartzean, emakumeek Polizia bera genero ikuspegian trebatzeko premia azpimarratu dute, Polizia konponbidea ez delako.

Bigarrenik, jendarteari ere badagokio emakumeen aurkako indarkeria borrokatzea. Besteak beste, biktimen estigmatizazioa ekiditeko deitu dute Ausnahmslos ekimenekoek: «Azken batean, gizonak egin dako erasoek ez gaituzte identifikatzen. Erasoak pairatu duten emakumeak baino gehiago gara. Jendarte honetako kide gara, adibidez». Illo beretik,

biktimei erasoaren errurik ez leporatzeko kontu handia ipintzeko exijitu dute. Eta, nola ez, erasorik ikusten duen edonoren parte hartzea, indarkeria matxista ez delako eraso jasaten ari den emakumearen auzia bakarrik.

Azkenik, hedabideek kasu honetan agertu duten jokabidea ikusita, oinarrizko bi printzipio gogoratu dituzte: emakumeen aurkako indarkeria ez da sexua, eta sexismoa zein indarkeria matxista ezin dakizkieke talde etniko jakin bati gogotzi.

GUREAN EZ DAGO SEXU ERASORIK

Koloniako salaketen albistearen oihartzuna Europako gainerako herrietara heldu da. Datu hutsak ematearekin, objektibotasuna adierazi nahi dute. Oraintsu jakin dugu dagoeneko 600 bat salaketa aurkeztu direla Kolonian. Hori bai, ez dute zehazten salaketa horien erdia lapurretekin lotuta daudela.

Europako hedabideek Koloniako gertakizunen berri ematean nabarmendu dituzten alde sentsazionalistek harritu egin dituzte Alemaniako egunkariak: «Europako hedabideek Kolonian Gabon zahar egunean gertatutakoa eztabaidatu dute, batzuetan maltzurkeriaz, besteetan datuekin» (“Taz”, 2016/01/07).

Harritzekoa da gure hedabideetan sexu erasoekin harritzeko gai izatea. Gurean sexu erasorik ez dela aditzera ematen dute. Sanferminetan, Baionako bestetan, Durango ko Azokan... emakumeok erasorik pairatzen ez dugula uste dute? Beharbada, horien berri izango balute, gure hedabideek ere indarkeria matxista



Gabon zahar gauean jende asko bildu zen Koloniako tren geltoki inguruan. Emakumeen kontrako sexu erasoak eta lapurretak gertatu ziren.
Markus BOEHM | AFP

gaitzetsiko lukete. Errealitateak dioskuna da, ordea, liskargiletzat hartzen gaitzuztela, adibide, Gasteizko aurtengo jaietan gertatutakoa:

–«Un ataque feminista contra los blusas de Vitoria enturbia el final de las fiestas» (“El País”, 2015/08/09).

–«La polémica entre el movimiento feminista y Blusas y Neskak empaña el final de La Blanca» (Gasteiz Hoy, 2015/08/09).

–«La polémica entre peñas y feministas por una agresión sexista afea el final de fiestas de Vitoria» (Eldiario.es, 2015/08/10).

«¿Unas fiestas demasiado polémicas?: La pitada de la balconada de San Miguel o el enfrentamiento entre feministas y cuadrillas de Vitoria dejan un sabor agri dulce a los que solo pretendían disfrutar las fiestas en paz» (“El Correo”, 2015/08/10).

Are gehiago, ETB2 telebista kateko “Como en casa” saioan Luis Izagak, Blusen eta Nes-

ken Batzordeko bozeramaileak, eraso gutxietsi zuen («Lo que ocurrió el día 6 con estos chicos había sido que... yo no quiero llamarlo una agresión sexista, sino una grosería, una mala educación con una chica»). Eraso salatu zuen mugimendu feministako kidea ere iraindu zuen Izagak telebista publikoan: «La señora Alitxu [Martínez del Campo] miente como una bellaca y no es la primera vez». Izagak feministon eta emakumeon lekua zehaztu zuen: «[Los grupos feministas] Quieren ocupar un espacio que yo creo que no les corresponde», «[Las feministas] Equivocan las formas. Cuando hacen lo que hacen el día 8 pierden la razón en todo».

Izagak aurretik ere indarkeria sexista gutxiesten zuen: «Yo he puesto pegatinas toda mi vida. ¿He tocado tetas por eso? Sí, pero no me han dado ninguna torta» (“El Mundo”, 2014/07/30). Hala ere, jokabide sexista hori ez du jendar-

teak zigortu. Alderantziz, Nesken eta Blusen Batzordeak oraintsu berriro bozeramaile izendatu berri du: «Blusas y Neskak renuevan su confianza en la actual Comisión presidida por Luis Izaga» (Gasteiz Hoy, 2015/09/08).

Gasteizko jaietan ere ikusi genuen emakumeei eraso egiten diguten gizonezkoak ez direla atzeritarrak. Durango sexu erasotzaile batekin bizi gara. Politikariek babes ten ez gaitzuztela berretsi dugu. Paul Abasolo, sexu erasotzaile indultatua, Zamudioko futbol taldean jokatzen dabil. Abasolori futbolaren inguruko galderak egiten dizkieten hedabideek ere bortxaketaren kultura areagotzen dute: ez dute erasotzailea identifikatzen eta eraso bera gutxiesten dute. Erasotzaileak atzeritarrak direnean, ordea, agintariak, hedabideak eta jendarteak asaldatu egiten dira, erasoak Alemanian gertatu badira ere: Euskal Herritik bi mila kilometrora. •



Louai BESHARA | AFP

IKUSMIRA

GOSEA BERA ERE GERRA ARMA DA SIRIAN, ALDE GUZTIENA GAINERA

Sei hilabete daramatza Madaya 40.000 biztanle dituen eta Damaskotik gertu dagoen hiri matxinoak Siriako Armadaren eta Hezbollah Libanoko gerrillaren setiopean. Nazio Batuen Erakundeak Al-Assaden Gobernu presionatu du hirira jatekoa sartzen utz dezan, batez ere Mugarik Gabeko Medikuek erakundeak 28 hiritar

gosez hil direla salatu eta gero. Madayakoa egoerarik krudelena izan daiteke baina ez da bakarra: Damasko ekialdeko Guta eskualdean antzeko setioak pairatzen ari dira herritarrak. Matxinatik sortutako hainbat talde ere gosea gerra arma gisa erabiltzen ari dira. Alepo hiritik iparraldera dauden Nubul eta Zahra herri xiitak duela urtebete setiatu zituzten matxinoek. Al-Nosra Fronteak (Siriako Al-Qaeda) zigor bera ezarri die Fua eta Kefraya herriei, xiitak hauek ere. Azkenik, Estatu Islamikoak (ISIS edo Daesh) setiopean ditu erregimenaren aldekoak diren Deir Ezoor hiriko barrutiak. Guztira 400.000 siriar «bizi» dira goseak hiltzen.

Dabid LAZKANOITURBURU

AUZOLANA ETA ELKARTASUNA

Palestinarrak antolatzen hasi dira etxea bota dieten familiei laguntzeko

 **ATZERRIA** / Ainara Lertxundi

Benjamin Netanyahu lehen ministro israeldarrak ustezko ekintzaile palestinarren etxeak edota beraien senideenak botatzeko agindua eman zuen. Auzolanean, palestinarrak etxea eta ondasunak galdu dituzten familiei laguntzeko diru bilketak egiten hasi dira. Gainera, zenbait enpresaburu palestinarrak apartamentu berriak eman dizkiete kaltetuei.

Duela astebete, Israelgo Armadak Muhannad Halabiren etxea bota zuen Ramallah hiritik gertu den Surda herrian. Duela hiru hilabete, urriaren 3an, Jerusalemgo Hiri Zaharrean bi israeldar hil eta beste horrenbeste zauritu zituen. Poliziak hil egin zuen 19 urteko palestinarra. Bizilagunek diru bilketa egin zuten etxerik gabe gelditu ziren senideei laguntzeko. Ramallah hiriko Yasser Arafat plazan beirazko kutxa erraldoia jarri zuten nahi zuenak dirua eman zezan.

«Jende asko triste zegoen Halabi familiari gertatutakoarekin. Erabaki genuen diru bilketa bat antolatzea. Emaizta oso positiboa izan da. Profil askotariko herritarrek esku hartu dute, ikasleetatik enpresaburuetarara. Lehendabiziko bi egunetan 63.500 dolar bildu genituen. Igande goizera arte [bihar] luzatuko dugu kanpaina», azaldu zion Abd al-Karim Abu Arqob Ramallah bertako ekintzaileak Al Jazeera telebistari. «Muhannad hil egin zuten. Zergatik orduan beste sei pertsona bizi diren etxea suntsitu? Zergatik zigortu behar dituzte egin ez duten zerbaitengatik? Etxebizitzarik gabe, zer egingo dute seme-alaba txikiek eta pertsona helduek?», salatu zuen.

Jeninen, Arab American University unibertsitateko ikasleek

antzeko ekimen bat ipini dute martxan pasan den astean Jerusalem bota zituzten ustezko bi ekintzaileen etxeak berreraikitzeke. Israelgo B'Tselem gobernuz kanpoko erakundearen arabera, urritik 1.286 palestinargelditu dira etxerik gabe.

Abenduaren 2an, milatik gora soldadu Shuafat errefuxiatu kanpalekuan sartu ziren Zisjordanian, Ibrahim al-Akkariren senideen etxea botatzeko. 2014an, soldatu eta zibil bana hil eta beste hamahiru pertsona zauri-

Muhannad Halabi 19 urteko palestinarraren ama Israelgo Armadak botatako etxearen hondakinen artean, Surda herrian, Ramallah iparraldean.
Abbas MOMANI | AFP

tu zituen Jerusalemen, gidatzen zuen autoarekin beraien aurka egitean. Soldaduek momentuan hil zuten. Bere emazte Amira eta bost seme-alabak kale gorrian geldu ez zitezen, kanpalekuko meskitetan zein autoetan ipinitako bozgorailuen bitartez familiari laguntzeko mezua zabaltu zuten. Duela urtebete jaso zuten etxea botako zietela zioen agindua.

Egun gutxitan, ehunka herritarrek egindako ekarpenari esker, 70.000 dolarretik gora, altzairuak eta etxerako bestelako tresneria bildu zituzten. «Familia bakoitzak ahal zuena eman zuen», esan zuen Abdullah Alqamek, komunitateko liderrak. «Ez nau harritu herritarren elkartasunak. Senarra hil zutenean, jende asko gerturatu zen guregana laguntza eskainiz. Jatekoa ekartzeaz gain, umeen eskolako matrikulak ordaintzen lagundu zidaten», adierazi zuen Amirak.

Bertako enpresaburu batek utzitako apartamentu berri batean bizi dira orain Amira eta bere seme-alabak. Bi logela, estreinatzeko moduko sukaldea, eta altzairuak ditu. Eta auzotarrak beraien baliabideen araberrako dohaintzak egin dituzte, detaile txikiena ere zainduz fa-





milia eroso senti dadin bizileku berrian. Izan ere, etxeaz gain, ondasun guztiak galdu zituzten.

Egun bat geroago, abenduaren 3an, Nablusen, Ragheb Alawiren etxea bota zuten. Bertan bere emaztea eta bi urteko semea bi-zi ziren. Urrian, Eitam eta Naama kolonoen heriotza eragin zuen eraso agindu izana leporatzen diote. Egun espetxean dago Alawi, epaiketa zain.

Segituan diru bilketa bat antolatu zuten. Hiri erdian kutxa handi bat ipini zuten. Alawiren etxeaz gain, beste hiru ere birrindu zituzten arrazoi berbera-gatik Nablusen iazko urrian eta beste hiru familia gehiagok antzeko aginduak jaso dituzte. Kal-tetuei laguntzeko abian ipinita-ko auzolanari esker, 200.000 dolarretik gora lortu dituzte.

«Diruaz aparte, batzuek lur eremuak, eraikitze materialak edota etxetresna elektrikoak eman dituzte. Egunero, bilduta-ko dirua zenbatzen dugu kalte-tutako familiaren ordezkari ba-tekin batera. Komunitateko buruzagiek gainbegiratzten dute kanpaina. Ez dugu Gobernuaren aldetik inolako laguntzarik jaso. Are gehiago, familia horiek la-guntzeko ez zuela deus ere egi-

Ume bat, Bahaa Alyanen argazkia esku artean duela –eskuinekoa da–. Ustez, hiru israeldar hil zituen urrian. Soldaduek Alyan familiaren etxea, argazkian ikus daitekeena, bota zuten urtarrilaren 4an, Jerusalem ekialdean. Ahmad GHARABLI | AFP

ten ikustean zerbait egiteko be-harrean sentitu ginen. Gure nahia apartamentu berrien gil-tzak laster ematea da», azaldu zion Al Jazeera Hassan Qam-hiak, 33 urteko ekintzaileak.

BRITAINIARRREN GARAIOK LEGEA

Balizko erasotzaileen etxeak edo beren hurbilekoenak botatzea baimentzen duen legedia oku-pazio britainiarraren garaikoa da. 1945. urtean Britainia Han-diak larrialdi egoeretarako De-fentsa Araudia onartu zuen. 119. artikulua, arau-hauste edo de-lituren bat egiten duten susma-garrien etxeak suntsitzea bai-mentzen du. Hori gutxi balitz, ustezko erasotzaileen senideen, bizilagunen edota beren komu-nitateetako kideen etxeak ere botatzea baimentzen du.

1949an, Genevako Konben-tzioak etheen eraispena eta zi-gor kolektiboak gerra krimenak direla adierazi zuen. Konben-tzioaren 53. artikulua indar okupatzaileei debekatu egiten die etxebizitzak bota edota bes-telako jabetzak suntsitzea ope-razio militarren baitan. 33. arti-kuluak, berriz, zigor kolektiboak debekatzen ditu. Baina, Israelgo Estatuak ez du inoiz kontuan

hartu nazioarteko legedia. Pen-tsa, 1967tik 1987ra, 1.300 etxetik gora bota edo zigilatu zituen Pa-lestinako lurralde okupatuetan, HaMoked giza eskubideen de-fentsan lan egiten duen taldeak egindako datu bilketaren arabe-ra. Lotte Salzbergerrek sortu zuen taldea 1988an palestina-rren giza eskubideen urraketak salatzeke, besteak beste Lehen Intifadaren harira Israelen inda-rrean jarri zuen «hezur hau-tsien» politikari aurre egiteko eta zauritutako palestinarrei la-guntzeko. Harriak botatzen zi-tuzten gaztetxoei besoak edo hankak puskatzea zen okupa-tzaileen politikaren ezaugarri nagusietako bat garai horretan.

Iazko urrian, Benjamin Netan-yahuk Israelgo lehen ministroak erasoak murrizteko neurriak areagotuko zituela agindu zuen, tartean ustezko erasotzaileen etxeak eraistearena. Urriaren 6tik urtarrilaren 4ra hamalau etxe bota ditu Armadak. «Oku-patzaileei mezu bat helarazi nahi diegu; Israelen egiten due-na gorabehera martirien fami-liak zein okupazioaren biktimak sostengatzen jarraituko dugu», nabarmendu du Abd al-Karim Abu Arqob ekintzaileak.

AUZITEGI GORENAK LEGEZTATU DUEN ZIGOR KOLEKTIBOA

1979ko azaroaren 6an, Israelgo Auzitegi Gorenak ustezko erasotzaileen etxeak botatzeko politika legezkotzat jo zuen disuasio-neurri gisa. Era berean, lurralde okupatuetako palestinar batek erabili ohi zuen logela baten zigilatzea ere baimendu zuen, delitu bat leporatu ziotelako. 1982ko abuztuaren 10ean, Auzitegi Gorenak etheen eraispena ez dela zigor kolektiboa adierazi zuen, hainbat familiek jarritako helegiteari erantzunez.

Lehen Intifadan, 1988tik 1992ra, Israelen 430 etxetik gora bota zituen. Erabakiak arbitrarioak izan ziren erabat. Nahikoa zen unean uneko buruzagi militarren oniritzia; hala, israeldarren edo soldaduen susmoak nahikoa ziren. Balizko erasotzailearekin lotura zuzena ez zutenen etxeak ere bota zituzten. Etxea alokatuta bazegon ere, eraitsi egiten zuten.

1993tik 1997ra, Osloko Akordioen testuinguruan, eraso suiziden ustezko egileen edo eraso horiek planifikatu zituztenen etxeak botatzera mugatu zen Israelgo Armada. Orotara, 24 etxe bota zituen lau urte horietan. 2001eko urrian, ordean, etxeak botatzeko politika gogor aplikatzen hasi zen berriro Bigarren Intifadari erantzuteko asmoz. 664 etxe bota zituzten soldaduek, aldezturik –Auzitegi Gorenak hala aginduta– familiei abisatu ondoren.

Giza eskubideen aldeko elkarrekin maiz salatu dute zigor kolektibo mota hau. Ustezko erasotzailea baino, gehienetan hilda edo espetxean dagoena, bere senideak zigortzen dituela nabarmendu dute.



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Polarizazioa Nafarroan

Hiriak lurraldean zehar barreiatu zaizkigu azken hamarkadotan. Aspaldi, «harresirik gabeko hiria ez da hiria» (J. F. Sobry, 1776) bezalako esaldiek bazuten zentzurik, baina, aspaldiotan, inoiz baino lausoagoak dira hiri-mugak. Hiriaren eta landaren arteko dikotomia klasikoak jada ez du zentzurik, dagoeneko ez delako existitzen landa garbi-garbia.

Arrazoi nagusia hipermugikortasun eredu berrian datza: gaur egun, garraio azpiegiturak dira hirigintzaren ardatz. Axola zaiguna denbora delako, ez hainbeste espazioa. Hala, gaitasun handiko errepide eta trenbideek, zulo beltzen moduan, gu-ne funtziobakarren ezartze ziprztindua erakartzen dute: etxetxoen urbanizazio autistak, industrialdeak, parke teknologikoak, saltokitarrak... Dena tokitan, baina irisgarri, azkar samar. Oro har autoaren bidez, eta, etorkizunean, akaso, baita abiadura handiko trenaren bidez ere.

Fenomenoari «polarizazioa» deitu diote Kataluniako hirigileek, Antonio Font UPCKo irakasleak, besteak beste. Polarizatzea ez baita soilik norako ezberdinetan orientatzea; beste adiera batean, metaketaren sinonimo ere bada. Eta, XIX. mendean tren geltokiek erakarp-poloen moduan funtzionatu zuten bezalaxe, orduko zabalgunek burgesak baldintzatuz, egungo errepide handiek lurralde polarizazioa eragiten dute, suburbanizazio barreiatua sakonduz. Polarizazioaren adibide garbia da Nafarroan ikusten ari garena, oraindik gauzatu gabeko hiru proiektu handirekin argitu daitekeena.


Garai hobeetan esperoan dagoen Gendulain hiri berria egiteko proiektua da handiena. 18.400 etxebizitza eraiki nahi baitira Asterain, Galar eta Muru-Asterain udalerrien artean dagoen 410 hektareako zona batean, jada eraikitako A-12 autobideak ia erditik zeharkatzen duena, ez kasualitatez. Nafarroako Auzitegi Nagusiak 2010ean Udalerriz Gaiendiko Plan Sektoriala (UGPS) baliogabetu ondoren, 2014ko abenduan «zuzenduta» onetsi zen, eta, beraz, ezin esan ahaztuta dagoenik, Euskal Herriko hirigintza astakerien gailurra izatera hel daitekeen polarizazioaren produktu nabarmenena.

Eskala txikiagoan, Galarko Cordovillan eraikiko omen duten 20.000 metro koadroko Ikea saltokiaren proiektua dago, La Morea merkataritza-zentro erraldoia duela hamahiru urte ezartzen hasi zen leku bertuan: A-15 autobidearen eta Iruñeko hegoaldetik aireportura doan PA-31 errepidearen ondoan. Eta, ez da huskeria, Gendulain bezala, Iruñeko udalerriaren jurisdikzioatik at. Polarizazioa hirigunearekiko parasitismoaz baliatzen baita.

Baztango Lekarozen eraiki nahi duten Aroztegia plan eztabaidatuak ere (228 etxe, golf zelaia, hotela...), ezberdina izan arren, baditu polarizazioaren zantzuak. Polarizazio alderantzikatu, hobeto esanda, ahalmen handiko errepidea oraindik ez dagoelako (erabat) eraikia. Baina pazientzia hartu. Iruñea eta Behobia arteko N-

121-A zabaltzen ez badute, autobide berri bat eraikiko dute lehenago edo beranduago. Nafarroako lurraldea antolatzeke helburuetako bat Eurohiriarekiko lotura azkarra baita. Eta Pirinioez gairdiko 2x2 autobideak porrot egin zuenez, pentsatzekoa da Behobiarako lotura indartu nahi izango dutela. Ez da asmakizuna: 2011ko Nafarroa Atlantikoko Lurraldea Antolatzeke Planean bazegoen eskualdez gairdiko komunikazio bide hori indartzeko asmoa. Eta, Lekarozetik bertatik pasa ez arren, xede kezkarria bazekarren ondoko Oronoz-Mugairi eta Doneztebe arteko lurretarako: komertzio-korridore bat osatzekoa, «komunikazio onak probestuz».

Aroztegiarekin lotuta, merezi du 2007ko Vianako UGPSrekin gertatutakoa aztertzea, antzekotasunak badirelako: 1.500 etxe eta golf zelaia, A-13 autobidearen ondoan. Kasu interesgarria, ez soilik plana iraungi delako, baizik eta Nafarroa Bai proiektuaren aurka zegoelako (Turi Gonzalez jeltideak «pelotazotzat» jo zuen). Zer gertatzen da Baztanen, beraz? •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Presoenak ez du kausa galduen zerrendan tokirik

Kausa galduen lagun gara Euskal Herrian. Ezaugarri hori du gure ibilbide historikoak, bai eta gure egungo jarrerak ere. Txikiaren eta handiaren artean erabaki behar izanez gero, txikiaren alde beti. Ondo dago, eta ezin zen beste era batera izan, gurea bi inperio handi-handien artean harrapatutako herri txiki-txikia izanik. Neurri berean, irabazlearen eta galtzailearen artean, galtzailearen mistizismoa gustukoago dugu, geureago da galtzea. Euskal kazetariok, bestalde, ikusia eta ikasia dugu munduan nagusi den irizpidea hemen irauli egiten dela: politika arloan batik bat, albiste txarrak berri onak baino erakargarriagoak suertatzen dira («ya lo decía yo» desatsegin hori inon entzuten al da Euskal Herrian baino maizago?) Horrekin guztiarekin zerikusia du orriotan Mikel Zubimendik deskribatutako nikefobiako joerak; irabazteari hartu ohi diogun beldurak, alegia.

Gauzak horrela, Estatuak antzeztu duen irabazle-galtzaile lehia maltzur horrek gehiegizko eragin psikologikoa du. Eta joko-zelai nagusia presoen esparrua izan da (ez hainbeste iheslariena). Inon galtzaile sentitzen bagara, hortxe da, kartzelak husteko nahi eta ezinean. Hurrengo egunotan euskal preso politikoen kopurua 400etik jaitsiko da, baina esateak berak lotsa apur bat ematen du, asko dira-eta. “Kausa galdua ote da?” pentsatzera iritsi omen da bat baino gehiago azken boladan. Iaz kalera ateratako hainbat preso mahaian bildu zituen GARAK abendu bukaeran eta horixe aipatu zuen Sergio García Errazkin donostiarrak, «gizartea presoekin ahaztu ote den» galdetu izan diotela.

Ezetz erantzun zien Sergik eta ezetz dela argi frogatu da Bilbon eta Baionan. Motelaldi horretan geunden, argi eta garbi, larunbateko manifestazioek susperraldi gogotsua ekarri duten arte. Indartsua izan zen erantzuna, itzela aniztasuna, goxoa giroa, zirrargarria dena. Baina galtzearekiko goresmena bezala, oso geurea da ziklotimia, dena ezinezko ikustetik dena egina dagoela di-da batean pasatzeko joera. Beraz, dauden aukerak eta arriskuak buru hotzez aztertzea komeni da. Eta faktore objektibo hutsei begiratuta, dudarik ez da; arazo hau konpontzeko gero eta elementu gehiago daude alde, eta gero eta

indartsuagoak; eta gero eta gutxiago aurka, eta hauek ere ahultze bidean, nabarmen. Manifestari kopurutik hasita; asko dira euskal herritarren kezka biltzen duten gizarite eta politika arazoak, baina ezerk ez du 70.000, 100.000, bai eta 130.000 lagun ere kalera ateratzea lortzen. Presoen eskubideen aldeko deiadarrak, ez beste ezerk. Datua da honako hau, ez iritzia.

Inoiz baino tresna gehiago dauzka borroka honek. Badu gizartearen gehiengo garbia (esana dago), badu eza-gutu gabeko aniztasuna (Sare eta Bagoaz seinale), badu lekukotza zabal eta ozena (5.000 senide eta lagun baino gehiagorena, Etixerat-ena), badu indar politikoa (hiru aukera nagusiak –EAJ, EH Bildu eta Ahal Dugu– daude sakanaketaren aurka), badu akordio politikoa bideragarria dela erakutsi duen froga (Baionako Adierazpena), badu gehiengo ezezaguna erakundeetan (Nafarroakoetan ere), badu lege aukerak eta zirrikituak bilatzeko borondatea,

Manifestazioek ekarri duten suspertzeaz harago, aldagai objektiboei begiratuta gero eta elementu gehiago daude presoen auzia konpontzearen alde; eta gutxiago eta ahultze bidean, aurka

badu nazioarteko irizpideen babes (‘‘Parot doktrina’’ baliogabetzea, beste estatuetan betetako espetxealdiak murrizteko aukera...). Aldagai guztiok norabide berean jarri, lerrokatu, batu, elkar bultzaka jartzea falta da.

Ispiluan jarrita, beste espaloian justu kontrakoa antzematen da: indar politiko gutxiago (PP eta PSOE gainbeheran), argudio kaskarragoak (hortaz auzia isiltzeko beharra), tranpak egiteko tarte txikiagoa (Europaren arreta, epaileen arteko desadostasun gero eta nabariagoak), eta hainbat totem faltsu goitik behera erori izana (Rosa Roderoren ekarpen ausartak ETak eragindako biktimak ez direla ezinbestean lubakian sarturik erakutsi du).

Perspektiban jarrita, itxaropenak eta ilusioak –faktore psikologikoa alegia– handiagoak izan zitezkeen 2011ko urrian, egia, baina aldagai objektiboetan oinarritutako aukerek benetakoagoak dirudite orain. •

{ analisia } **Aitor Agirrezabal**

Prozesua eta «prozesismoa»

kusmin handiz jarraitu du Euskal Herriak Katalunian azken urteetan gertatutakoa. Kasu askotan, hango hauteskunde edo Diadei etxekoei baino gehiago begiratu zaie. Egia da independentismo kataluniarak iragan markada honetan izan duen gorakadak isla handia izan duela euskal prozesu subiranistan, baina, zenbaitetan, internazionalismo bezala ulertu nahi izan duguna inperialismo ideologiko huts bilakatu da. Iritzia emateaz harago, Katalunian zer egin behar zuten eta zer ez ezarritz, gehiago euskal prozesu bati begira askapen prozesu kataluniarri berari baino.

Azken txanpa honetan, CUPEk Junts pel Si koalizioarekin negoziatzeko eman dituen 100 egunetan, jarrerak aldatzen joan dira. Iragan irailaren 27an ezker independentistak Kataluniako Parla-

Euskal Herrian
internazionalismo moduan
ulertu nahi izan duguna,
zenbaitetan, inperialismo
ideologiko huts bilakatu da.
Iritzia emateaz harago,
Katalunian zer egin behar
zuten eta zer ez ezarritz

mentuan hamar eserleku lortu zituenean, ilusioz eta CUP proiektuaren tinkotasunaren eredu balitz moduan ospatu zen Euskal Herrian. Aldiz, CUPEk hamar eserleku lortu izana bera izan da euskal herritarrek internazionalismotik inperialismo ideologikorako bidean jarri gaituena. 2012an David Fernandez, Quim Arrufat eta Georgina Rieradevall (gerora Isabel Valletek ordezkatu zuen) Kataluniako Parlamentuan sartu aurretik, jende gutxi izan zuen CUPen berri. Ezker independentistak ibilbide luzea du Herrialde Katalanetan, baina ibilbide hori, beti, kalean egin du, instituzioetatik kanpo. 2012an, ordea, prozesu independentista indartzen eta finkatzen ari zela ikusita, hauteskundeetara aurkezteko hobetsi zuen. Ez aurretik barne eztabaida eta asanblada ugari ospatu gabe.

Eta orduan kalea baldin bazen ezker independentistaren joko zelai nagusia, gaur egun ere hala da. Parlamentua, soilik, beste asanblada bat da. Hala ere, kaleko edo auzoz auzoko asanbladetan landutako gai eta termino ugari parlamentura eramatea lortu du, bertako gainerako alderdien kontrako norabidea ibiliz. Horrela, orain, feminismoa, haustura, independentzia edo plan soziala bezalako hitz eta gaiak mahaiaren gainean daude Kataluniako Parlamentuan.

Horrela, hilabeteotan ikusi dena, politika egiteko beste eredu bat izan da. Bi frontetan; alde batetik, barne eztabaidan, eta, bestetik, Junts pel Si koalizioarekin aurrera eramandako negoziazioan. CUPEk kanpaina guztian defendatu zuen ez zuela Mas presidente egingo. Junts pel Si berak, aldiz, Mas zela hautagaia berretsi zuen behin eta berriro, nahiz Mas zerren-




dako laugarrena izan. Modu horretan, elkar ulertu beharra zuten bi postura kontrajarri ziren aurrez aurre. Eta horrela hasi zen jokoa. Behin emaitzak taula gainean zeudela, Anna Gabriel eta Antonio Bañosek gidatutako formazioak lehendakaritza koral bat proposatu zuen. Bide motza izan zuen proposamenak.

Azaroaren 9an bi zerrendek bat egin zuten haustura deklarazioa onartzeko, baina hurrengo egunetan Masen izendapenaren aurreko ezetza berretsi zuen CUPek Parlamentuan. Une horretatik aurrera iritsi ziren egunez eguneko bilera eta negoziazioak, eta, bide batez, baita Euskal Herritik heldutako lezioak ere. Abenduaren 22an Masen alderdiak 270 milioi euroko plan sozial bat aurkeztu zuen.

Egoera horretan heldu zen abenduaren 29an Sabadellen egindako CUPen asanblada. Bertan aurrez aurre eta berdinduta agertu ziren ezker independentista osatzen duten bi tradizio nagusiak. Alde batetik, independentziarako bidea ezkerreko fronte baten bidez egitea defendatzen duena (Endavant), eta, bestetik, klase desberdinen arteko aliantza hobesten duena (Poble Lliure). 1.515 boto lortu zituen bakoitzak. Baina gauzak ez lirarteke asko aldatuko 1.530-1.500 geratu izan balira. Azkenean, CUPeko Kontseilu Politikoak, lurraldeko asanbladen bitartez, ezetza eman zion Masi.


Euskal Herrian behin eta berri-entzuten dugu prozesu parte hartzaileak bultzatu behar direla, gizartea engaiatzeko ordua dela edo herritarrek euren etorkizunaren eta erabakien jabe izan behar dutela.



Ezkerreko irudian, CUPen asanblea bateko irudia, Mas inbestitu edo ez erabakitzeak zirenean enpatean amaitu zenekoa. Lerron gainean, Anna Gabriel (ezkerrean) eta Antonio Baños (eskuinean), CUPen barnean ikuspegi ezberdinak izan dituzten bi aurpegi nagusiak. Josep LAGO | EFE

Horixe, bada, praktikara eramanez dute CUPen. Horrek, baina, handitzen zoazen heinean hainbat kontraesani aurre egin behar izatea ere suposatzen du.

Prozesu horrek guztiak kritika ugari eragin ditu Katalunian. Batetik, prozedurarekin bai baina emaitza batekin edo bestearekin ados ez izateagatik. Bestetik, Euskal Herritik askok akordioa nola edo hala lortu behar zela hobesten zuten moduan, CUPi botoa eman zioten batzuek ere ezin zituztelako prozeduraren nondik norakoak ulertu. Alde batetik, irailean CUPi botoa eman zioten askok ez zutelako ezker independentistaren barne funtzionamendua ezagutzen, hau da, ez zuten ezker independentista ezagutzen. Ohiko alderdi politikoen jokabideekin ohituta izanik, eta CUP politika parlamentarioan sartuta ikusita, CUPek ere gainontzekoen gisa jokatu beharko lukeela uste dute horiek. Prozesu asanblarioek eta horien denborek lehen lerroko politikan tokirik ez



dutela argudiatuz. Aldiz, ezker independentistak, parte hartze eta barne demokrazia lezio izugarria eman du Kataluniaren historiaren momentu garrantzitsuenetako batean. Kontra, baina, ez du CUPi botoa eman zion masa horren guztiaren artean bereizketak egiten jakin.

Komunikazioa

Duela oso gutxi arte, CUPi botoa ematen zioten ia guztiak alderdia osatzen zuten adar edo mugimendu sozialetako militanteak ziren. Irailaren 27an, ordea, boto ugari irabazi zituzten, 2012ko 126.435 botoetatik 337.794 botori iritsiz. 210.000 pertsona gehiagok eman zieten euren konfiantza. CUPek, baina, ez du hautetsi, militante eta boto-emaitzen arteko desberdintasun hori egiten jakin, ez du prozedurak komunikatzen jakin, eta azken multzo horretako askok ez dute gertatutakoa ulertu.

Era berean, asko izan dira Euskal Herritik Artur Masi eze-

tza ulertu ez dutenak, prozesua ezbaian jarri duelako. Prozesua “prozesismo” bilakatzeraino. Euskal Herriak distentsio egotz bat bizi du maila politikoan, bai proiektu independentista baten bidean bai beste alor ugaritan ere. Euskal gizartean dagoen motibazio falta horri aurre egiteko, Herrialde Katalanetara begira jarri da jendar-tea, Kataluniara zehazki. Hasiera batean internazionalismo moduan uler zitekeena, azkenaldian eta batez ere negoziazio hauetan zehar, inperialismo ideologiko bilakatu da, han bizitzen ari zena gurera ekarri eta zer egin behar zuten finkatuz. Kasu askotan gizartearen eta indar desberdinen nondik norakoak aztertu gabe.

CUPen barneko bi aukerak zilegitasun bera zuten, are gehiago eztabaida nola eramanez duten ikusita, baina Euskal Herritik aukera bataren edo bestearen alde egin behar zutela azpimarratzera mugatu gara, analisi sakon baterako denborarik hartu gabe. Zer/nor da

CUP? Zer/nor da Junts pel Si? Nor da Mas? Zer da prozesu subiranista? Zer da independentzia? Katalunia independentzia prozesu betean murgilduta dela, arlo askotan askapen prozesuaren logika galdu egin da, independentzia jomuga gisa jarri eta al-daketa soziala baztertuz.

Berriro etxera begira jarrita, ispilu baten bila ibili gara Katalunian. Zein da gure erreferentea? Kataluniako zein alderdik jokatzeko du Euskal Herriko alderdi honen papera? Aldiz, egoera desberdin batetik abiatuta, bide ezberdina egin dute. Bete daude irakaspenak, gizarte zibilean izandako indar metaketa kasu, baina begira egote horrek ilusioa bezala frustrazioa ere pitz dezake.

Azkenik, Carles Puigdemonten izendapenarekin, urak baretu eta independentismoaren ilusioak berpiztu dira. Bide batez, espainiar Estatutik CUP txalotzen zuten askok «euren burua saltzea» leporatzen diete orain, eskuinarekin lerrokatu direla argudiatuz, Mas alboratu eta Convergencia plan sozial bat hartzera behartu dutenean. Bideak bloke independentistaren desgastea ere ekarri du, noski. Epe luzeko eztabaidek, are gehiago publikoak direnean, arrisku hori dute.

Orain, trantsizio Gobernuaren txanda da, Estatuarekin hautsi, errepublikarako bidea egin eta erreskate sozialaren plana abian jarri. Hori guztia gehiengo sozialak ahaztu gabe, bide hori eta independentzia bera gizarte eta estatu eredu desberdin baten alde erabiltze aldera.



Goiko irudian, Artur Mas eta Carles Puigdemont, azken honen inbestidura adostu berritan. Lerroon eskuinean, berriz, eragile sozialek akordioaren alde eginiko mobilizazio bateko irudia.

Josep LAGO | AFP



Kataluniako *procés* delakoaren enegarren une historikoa pasatu da dagoeneko. Baina, orain, kon-sulta bai ala ez edota zerrenda bateratua bai ala ez bezalako aurreko beste momentu batzuetan ez bezala, nerbioak dantzan eta labanak oso zorrotz ibili dira. Azkenean, txiriparen txiripaz, baina, akordioa lortu dute.

Beste hauteskunde batzuk egiteko aukera –hainbat kataluniar belaunaldirentzat desilusio apokaliptikoa litzatekeena– etorkizun hurbiletik uxatu dute. Presidente independentista peto-petoea aukeratuta, zoriontasunaren ez-tanda frenetikoa sentitu da Kataluniako abertzaleen artean, itolarri kolektiboa atzean uzteko aire miragarria. Artur Masek esan bezala, independentisten artean adostasun falta ospatzeko cava hozten jarrita zutenak majo izorratu dira, monumentala izan da haien porrota. Gustua ematen du horrek, poza benetan.

Aitorpen horrekin batera, Junts pel Si eta CUPek izan dituzten negoziaketa horietan sortu zaizkidan hausnarketa batzuk ere laburbiltzera noa. Eta bide batez, egiari egia zor zaiolako eta justiziazkoa iruditzen zaidalako, Artur Masek figura goratu nahi dut.

Hala saldu digute –negozia-keten burtsan oso ohikoa den dibisa erabiliz– eta erosi egiten dut argudioa: Junts pel Si eta CUPen arteko akordioan ez daude garaileak eta garai-tuak. Biak pozik, zauriak zauri eta antzerkia egin beharra obligazio, hain modakoa egin den beste *win-win* akordio

{ analisisia } **Mikel Zubimendi**

«Molt Honorable Senyor Mas»

horietako bat. Landatzeko lurrak sasoia behar duen bezala, akordioak lortzeko ere agian horrela egin behar dira gauzak. Azken unera arte eramanda, pronostiko guztiak kontra jartzeraino. Agian horrela mugitzen dira politikan harriak, ez direla mugitzen, ez direla mugitzen... eta, plasta!, erabaki batek, pertsona baten mugimendu batek egiten du alde guztia, dena mugitzeraino. Agian Katalunian azken ordu horietan gertatua mirari bat izan da. Edo agian ilusionista baten trukua. Hala Copernicoren jira famatua. Ez dakit. Denetarik pixka bat, agian.

Hori bai, nik uste bai Junts pel Si koalizioari eta baita (berezi) CUPi berari ere eskuetatik joan zaiela negoziaketaren kontua. Tragediari begietara begiratu diote, bertatik bertara ikusi eta sentitu dute. Ohartu dira, horixe baietz, beren jokabide eta ika-mikek sortutako txinpartek pitz zezaketen sute erraldoiaz, eragin zezaketen hondamendiaz. Behin akordioa sinatuta, eta oraindik denbora baterako, tragediaren muturreraino gauzak eramateko garaian zeinek izan duen ardua handiagoa eztabaidatzen badago saltsa, antzerki pixka bat, errelatoaren inguruko bien arteko borrokatxoak segituko du. Normala ere bada. Ez zait bereziki hori inporta.

Inportantea iruditzen zait, ordea, benetan inportantea, Kataluniak nazio gisa politika bizitzeko duen era. *Seny* delakoaren mitoa mito, Euskal Herrian bandokide garen bezala han ere lubaki alderdikoiak sakon, arrakalarik gabeko atxikimenduitsuak nahikotxo eta azterketa arrazoituen absentzia batzuetan presente, baina,

hala ere, beren buruarekin hitz egin eta beren buruarekin eztabaidatzeko gaitasuna. Kultura politikoa egon badago, jende kultua politikan, eta politikaz hitza natural, oso natural, herritarren egunerokoan. Alderdietatik kanpo, kataluniar errepublikaren kausaren aldeko partisoen lanak arreta piztu dit. Plaza eta negoziaketa politikoen sukaldeetan, su eta ke, alderdiei mahaitik altxatzen ez utziz, konstantzia erakutsiz, aritu dira gizarte erakunde horiek. Milioika *online* eta milaka kalean, herritarrekin batera. ANC, AMI udalerri independentisten elkarteak eta gisakoek jokatu duten papera goraiatzekoa da.

Agerikoa izan da ere, niretzat oso argia, Artur Masi an-



Artur Mas, presidentetza utzi izanaren balorazioa egiteko agerraldi batean.
Josep LAGO | AFP

tolatu dioten gorroto kanpaina. Bere izena belzte, ohorea zikintzea, politikoki ezgaitzea bilatzen zuten. Burges, ustel, hilotz... deitu diote, bere postua salbatzeko edozer egiteko prest dagoen politikari eskurpulturik gabe gisa karikaturizatu nahi izan dute. Broma gutxi. Baina Artur Masek, ongi eusteaz gain, demostratu egin du, asko demostratu du!

Demostratu du politikariak daudela eta liderrak daudela. Eta berak liderra izateko pasta duela. Liderra izatea –ai ahalmen iheskor hori!– norbere interes pertsonal eta karrera profesionala baino haragoko zerbait da. Misio komun bat erakutsi, singularraren lehen pertsonan jokatu eta jendearekin emozionalki eta intelek-

tualki konektatzea da. Liderra izatea eraldatzea da. Komententziatik harago egokia dena egitea, esperantza elikatzea eta inspiratzen duen ikuspegia eskaintzea. Eta bere mugimenduekin, bere keinuekin, Artur Mas liderra izan dela begi bistakoa da niretzat. Ezeren aurretik eta ororen gainetik Katalunia dagoela erakutsi du. Alde batera eginda, irabazteko galduz, edo nahi bada, bere burua (politikoki) “sakrifikatuz”, Artur Masek erakutsi du kategoriazko gizona dela. Kategoriatik pertsona erakutsi du. Abertzale gisa duen integritatea frogatu du, nabarmen. Jakinduria politikoa transmititu du eta eskuzabala izan da. Merezitu du aitortzea. Horrek guztiak ohoratu egiten du.



Amaia
Ballesteros

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



HAURRENTZAKO FILOSOFIA

Pentsatzen lagundu, haurrak filosofiara gerturatzeko metodologia proposamena

📁 JENDARTEA / Aimar Etxeberria Korta

Itxura batez, konplikatua iduri dezake “filosofia” eta “haurrak” hitzak ezkontzea. Platon, Sokrates, Kant, Hegel eta beste hamaika filosofoen ize-nak datozkigu burura “filosofia” hitza aditzean. Baina zer da filosofia, zenbait autorek mundua ikusteko duten modua ikastea? Ez, behintzat, Miren Camino eta Imanol Alvarezen ustetan. Haurrentzako filosofia tailerrak ematen dituzte –edo haurrentzako filosofia tailerrak emateko irakasleak formatzen dituzte–, eta oso bestelakoa den filosofia-ren ikuskera dute.

Ikasketaz filosofo dira biak eta, arrazoi bat edo bestea medio, Haur Hezkuntzako ikasketak ere eginak dituzte. Hurrei zuzendutako filosofia tailerrak ematen dituzten talde bateko kide dira, «forma hartzen ari den talde bateko kide», alegia. «Eraketa fase batean aurkitzen den taldea da gurea; elkar eza-gutzen eta tartean behin elkartzen ari gara», dio Alvarezek. Estatu espainiarreko beste hainbat autonomia erkidego-tan existitzen dira haurrentzako filosofia tailerrak ematera dedikatzen diren taldeak, eta euren arrastoa jarraitu nahi dute.

Behin filosofia ikasketak amaituta ekin zion irakasle izateko ikasketak egiteari Caminok, eta orduan jarri zituen lehenengo aldiz harremanetan filosofia eta haurrak: «Interneten sartu eta hor ikusi nuen: ‘haur filosofia’. Nire bi ikasketak lotzen zituen kontzeptua zen, opari bat bezala heldu zitzaidana». Alvarezek, aldiz, filosofia ikasten ari zela lotu zituen ikasketak hurrekin: «Hortik erabaki nuen irakasle izateko ikasi behar nuela». Madrilen urtero egin ohi den kurtso batean ezagutu zuten elkar, eta “taldeko” gainontzeko kideak ere antzeko topaketa edo jardunaldietan ezagutu izan dituzte.

HAURREI EZ ZAIE IRAKASTEN

Haurrentzako filosofiaz ari garela, honakoa da ikasi beharreko lehenengo araua: hurrei

«Filosofia» eta «haurrak» elkar ezkontzeko zailak diruditen bi kontzeptu dira. Baina filosofiaz aritzea hainbat autorek duten mundu ikuskera ikastea baino gehiago da: galderak egitea da, esperientziei zentzua ematea. Prozesu horretan laguntzaile dira Miren Camino eta Imanol Alvarez. «Hurrei ez zaie irakasten, pentsatzen lagundu baizik».

ez zaie irakasten, pentsatzen lagundu baizik. «Hurrekin filosofiaz aritzeko erabiltzen dugun metodoak hankaz gora jartzen du egun hezkuntza formalean erabiltzen den ikasketa metodologia. Uste dugu gauzak ez direla irakatsi behar, guztiok daukagula pentsatzeko gaitasuna gure baitan. Horregatik, pentsamendu-trebetasuna garatzean oina-

rritzen dira gure saioak, pentsatzeko espazioak eman eta eskainiz», azaldu du Caminok.

Pentsatze prozesu horretan laguntzaile papera jokatzen dute eurek. «Galderen bidez ziztatu egiten ditugu haurrak, urrugo joan daitezen bultzatzen ditugu; oso sinplea ikusten den horri bi buelta gehiago ematera behartuz. Beraz, esan daiteke ez

garela irakasleak, erraztaileak baizik», azpimarratu du Alvarezek.

Baina, zenbateraino dira gai haurrak filosofatzeko? Nola erantzuten dute Camino, Alvarez eta euren taldeek proposatzen dituzten ariketen aurrean? «Adinaren arabera». Hori da biek ala biek ere eman duten erantzuna. «Materiala dago 3 urterekin hasi eta 18 urteak bete arte filosofiaz aritzeko. Baina adinaren arabera erantzunak oso ezberdinak dira, lantzen diren gaiak ere hala direlako», dio Alvarezek. Erabiltzen den metodologia ere ezberdina da adinaren arabera, baina oinarriak beti dira berak.

Normalean, esperientzia bate-tik abiatuta hasten dira ariketa filosofikoak. Esperientzia hori izan daiteke egoera bat, ipuin bat, artelan bat; eta horretatik abiatuta talde hausnarketa bat garatzen da, elkarrizketa filoso-

Miren Camino (ezkerrean) eta Imanol Alvarez (eskuinean) hurrekin filosofiaz aritzen diren taldeko bi kide dira.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS





Caminok irakasleen formakuntzan egiten du lan batik bat; Alvarez, aldiz, haurrekin aritzen da gehiago. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

fikoa deitzen zaiona. Ikuspuntu guztiak komunean jarri ondoren, hasierako esperientzia hari zentzu bat ematen ahalegintzen dira haurrak.

Helburua, finean, autonomia, sortzailea eta gogoetan oinarritutako pentsamendu bat garatzea izango litzateke Caminoren arabera: «Gainera, modu natural batean garatu behar den kontu bat dela iruditzen zait. Prozesu bat da, eta zenbat eta gehiago garatu orduan eta konfiantza gehiago izango duzu zeure buruarekin». Ariketa egiteko orduan, gainera, “arau” batzuk ezartzen dituzte aurrez: besteen iritziak ezin dira epaitu eta enpatiak nagusitu behar du. «Iritzi guztiak zentrora eramaten dira, eta elkarrekin ahalegintzen gara guztiari zentzu bat ematen, inoren iritziaren gaineko epaketarik egin gabe», aldarrikatu du Caminok.

LIPMAN ETA NORIA PROIEKTUA

Gauza guztiek bezala, haurrekin filosofia lantzeko modu honek ere baditu bere “gurasoak”. Ize-

nak jartzearen Matthew Lipman filosofo estatubatuarra eta Noria proiektua izango lirateke. Lipman litzateke beteranoa, «gizarte solidarioago, zentzudunago eta etikoago» baten aldeko lanari lehenago ekin ziona, Caminoren arabera.

«Ohartu zen bere ikasleek ez ziotela zentzurik aurkitzen filosofiari, ez ziotela beharrik ikusten arrazoia bilatzeari. Orduan, eleberri batzuk idaztea otu zitzaion, eta hortik abiatuta gai filosofikoez hitz egitea. Batez ere nerabeei zuzendutako lana da, beraingandik hurbil dagoen mundu baten inguruko galderak planteatzen dituelako», adierazi du Alvarezek. Hori hala, Bigarren Hezkuntzan erabiltzeko material bezala ikusten duela azaldu du.

Gaineratu du Caminok Lipmanen ekarpen nagusia izan zela zera galdetu izana: zer da pentsamendua? «Pentsamendua dimentsio aniztuna da –azaldu du–, ez dauka dimentsio bakar bat; pentsamendu-trebetasunak ditu, baina baita etikoak edo

«Galderen bidez ziztatzen ditugu haurrak, urrunago joan daitezen; oso sinplea ikusten duten horri buelta pare bat gehiago ematera behartzen ditugu»

«Hezkuntza formalean metodologia aldaketa bat beharko litzateke, haurrek pentsamendua gehiago garatzeko. Ikasleei erantzunak ematen zaizkie eta ez zaie galderak egiten uzten»

sormenari lotutako dimentsioak ere. Pentsamendua multidimentsionala da, eta dena batera landu behar da. Proiektu honen azken helburua da erabaki zuhurrak hartuko dituzten pertsonak eraikitzea; besteekin modu solidario batean kooperatzea, enpatikoak izatea finean».

Noria proiektua, berriz, «kimu berri bat» da Caminoren esanetan: «Lipmanen lanetan sakabatatuta dauden elementuak hartu eta ordenatu egiten ditu, pentsamendu-trebetasun taldeak sortuz. Gainera, trebetasun bakoitza nola landu eta zer galdera egin gaineratzen du». Horregatik iruditzen zaio Caminori hain garrantzitsua irakasleen formakuntza, eurek saioetan duten paperak determinatuko duelako saioaren beraren arrakasta, eztabaidaren norabidea gidatuko duen galderekin asmatuz. Noria proiektuari gehitu behar zaio pentsamendu-sortzaileari Lipmanek baino garrantzia handiagoa ematen diola.

Beraz, honela laburtu genitzake Lipman eta Noria proiektuaren arteko ezberdintasunak: Lipmanen eredua sakonagoa da; politika, etika eta estetika bezalako gaiak jorratzen dituena. Pentsamendu abstraktua garatua duten haurrekin hobeto funtzionatzen du. Noria proiektuak, berriz, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan erabiltzeko aproposagoa da. Lipmanen lana txukundu egiten du, eta pentsamendu sortzaileari indar berezia ematen dio.

HEZKUNTZA FORMALA, ARROTZ

Miren Camino eta Imanol Alvarezek biek ezagutzen dute hezkuntza formala. Haur Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan eskolak emana da Camino, baina haurdunaldi baten ondorioz erabaki zuen hezkuntza formala alde batera uztea. Orduz geroztik, irakasleak formatzeari eskaini dio denbora gehien. Alvarezek, aldiz, Filosofia eskolak ematen ditu Bigarren Hezkuntzan. Hori hala, biek ezagutzen dituzte hezkuntza formaleko metodologiak dituen miseriak, eta horiek gainditzeko lan egiten dute.

«Guk garatzen dugun metodologiaren antzeko zerbait behar-beharrezkoa da hezkuntza formalean. Hezkuntza formalak aldaketa asko behar ditu, baina gutxienezkoa da ikasleen pentsatzeko gaitasunean sakontzen duten ikasgai edo metodologiak bultzatzea», dio Alvarezek. Gaineratu du euren lana oso ondo egon arren, ez dela inoiz hezkuntza formalera iritsiko curriculumean toki bat egiten ez zaion bitartean.

Idea horretan sakondu du Caminok ere: «Proiektu hau aurkitu nuenean jabetu nintzen proiektu integral bat zela, olistikoa. Balio du edozertarako: Matematikarako, Gizarte Zientzietan... Lantzen ditu trebetasun sozialak –talde ariketa bat delako–, baina baita emozionalak ere. Alde etiko bat ere badago, beraz, esan daiteke hezkuntzako alor guztiak biltzen dituela bere baitan».

Hezkuntza formala, baina, elementu horiek guztiak modu transbertsalean lantzen ahalegintzen dela gaineratu du Alvarezek: «Azkenaldian oso modan daude konpetentziak, konpetentzietan oinarritutako curriculumak. Guk lantzen ditugun elementu horiek guztiak modu transbertsal batean lantzen dira; hori ongi dago, baina benetan landu ezean disolbatu egiten dira azkenerako. Onartzen da beharrezkoak direla, baina, aldiz, ez dira behar bezala lantzen».

Euren alde dute Lipmanen edo Noria proiektuaren metodologia erabili izan dutenetan jaso duten erantzuna. Alvarezek dio berak antzeman izan duela kurtsoa amaitu ostean bere ikasleen bilakaera, «keinu edo detaile txiki batzuetan bada ere. Antzeman dezakegu –jarraitu du– nola beraien artean ohitzen diren arrazoiak eskatzera, ohitzen dira errespetuz onartzera iritzi ezberdinak... Baina, egia esan, nahi baino denbora gutxiago eskaintzen diogu honi».

Caminok ezaguna duen irakasle baten adibidea jarri du. Bere formakuntza jaso eta ikasgelan aplikatzeari ekin zion, hiru, lau eta bost urteko umeekin.

Haurrak Lehen Hezkuntzara pasa zirenean irakasle berria joan omen zitzaion erreklamatzera, umeak oso lotsagabeak zirela esanez, une oro galderak egiten aritzen zirela salatuz. «Garaipen txiki bat izan zen», dio.

ETORKIZUNEN TAILERRAK

Haurrentzako filosofia tailerrek eskaririk badutela esan genezake. Datorren larunbatean hasita –eta lau saiotan banatuta–, Elkarrekin elkarlanean, “Haurrentzako filosofia. Jolastuz pentsatu” tailerra eskainiko du Imanol Alvarezek. «Pentsatzeko gaitasuna lantzeko tailerrak» izango direla aurreratu dute antolatzaileek, eta sei eta zortzi urteko haurrei zuzenduta daudela adierazi dute.

Kasu honetan, ipuinak erabili-ko ditu Alvarezek umeei pentsaraztea eragiteko. Ipuin klasikoak izango dira batzuk, eta haurrekin filosofia lantzeko sortu berriak diren Wonder Ponder sai-

lekoak besteak. «Hausnarketarako gustua eta gaitasuna landuko ditugu, irtenbide anitzak dituzten auziak ikusgai jarri era beseen iritziekiko errespetua sustatuko dugu, arrazonamendu logiko, analogiko eta hipotetikorako gaitasuna piztuz. Iritzia emateko, kontatu eta gogoeta egiteko libre sentiarazi nahi ditugu haurrak, mundu imajinarioak sortuz, hanka sartzeko beldurrik gabe, epaiketarik egin gabe», azpimarratu dute antolatzaileek.

Saioak urtarrilaren 23an eta 30ean zein otsailaren 13an eta 20an egingo dira; larunbat goizetan guztiak, 12.00etatik 13.00ak edo 13.30ak arte, Donostiako Elkar liburu dendan.

Imanol Alvarez umeekin eseriko den bitartean, Miren Caminok irakasleak formatzen jarraituko du. Gernikara bidaiatuko du oraingoan, Gernika Oroituz Fundazioak antolatu dituen tailerrak ematera. “Elkarrekin pen-

tsatzen ikasi. Introducción a la filosofía con niños y niñas” lelopean, atzo hasi eta gaur, hilaren 22an eta 23an, eta otsailaren 12an izango dira formakuntza saioak.

Aurrez adierazi bezala, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko irakasleei zuzendutako tailerrak izango dira batez ere. Haur filosofiaren munduan sartu nahi duen horiei oinarri teoriko-praktiko bat emango zaie eta, gaitasun filosofikoa bultzatze aldera, galderak egiten trebatuko dira. Horretarako metodologia parte hartzaile bat garatuko dute, elkarriketa filosofikoa sustatuko duena. Saioak musikako abesbatzaren egoitzan egingo dira aurrez aipatu egunetan, eta hogei ordu presentzialez eta lau ordu ez-presentzialez osatuta egongo dira. Zoritzarrez, ikastaroan izena emateko epea pasa den asteazkenean amaitu zen.

Isa, taldeko beste kideetako bat, haurrekin filosofia tailer bat egiten. GAUR8





Gorka Zozaia
Kimikaria

Eta orain, Antropozenoa!

Ezagutzen nauzuenok ongi dakizue deabruaren abokatu papera egitea gustuko dudala, oro har apika, baina bereziki klima aldaketaren gaia mahai gainera irteten

denean. Arrazoia ez da horrenbeste gizakiok klima aldaketan eraginik izan dugunik zalantzetan jartzea, baizik eta hegemonikoa bihurtu den diskurtso horren atzean ezkutatzen dena azalera-tzea eta ingurumenari dagokionez zein jokabide izan behar dugun argitzea. Izan ere, hutsune handia du ezkerrek esparru honetan, bete-betean lerratuta baitago lehenago ekologistek baina gaur kapitalistek bahituta duten diskurtsoarekin: gizakiok karbono dioxidoaren (CO₂) isuriarekin klima aldatzen ari garela.

Ez dut nik ukatuko klima aldaketa antropogeniko bat –klima aldaketa etengabe den sistema da, beraz, gaia ez da aldaketa bera, baizik eta gizakiok sortua ote den– ematen ari denik, baina ezin dut inola ere ikuspegi ekologista sinplekeria horretara mugatu. Eta ez soilik nabarmenki boteredunek orkestraturiko kanpaina batengatik delako gaur pentsamendu hori hegemoniko –susmoa pizteko bederen datu deigarria–, baizik eta, batez ere, ez duelako balio ikuspegi ekologista egoki bat eraikitzeke. Esan nahi baita, “klima aldaketa CO₂ isuriengatik ematen da” mantra egun auto elektrikoak saltzeko erabiltzen dela, edo herrialde zehatzen jarduera industrial seinalatzeko, edo, okerragoa dena; energia nuklearrari alfonbra gorria jartzeko, eta inoiz ez gutxiago kontsumitzea edo autogestio energetikoa bultzatzeko. Nik neuk egindako tesinan frogatu nuen, ehun ikasleren artean, gehienek uste zutela auto elektrikoek ez dutela CO₂rik isurtzen, egun argi-indarraren gehiengo

erregai fosiletatik lortzen dugunean. Nire ustez, ikuspegi ekologista egoki bat izateko, gainera, ez da beharrezkoa “gizakiok klima aldatzen ari garen” arrazoiketa, baizik eta, sinpleki, ezin garela zerri ardurabako batzuk izan! Hots, gure beharrak ingurunea iraunkor mantenduz asetzean dugula erronka, eskala lokal eta planetarioan.

Askotan oroitzen dut, “Prestige” ontziaren isuria eman zenean (*hilillosh de plashtilina* zioenarekin akordatzan? Hori bai ezabatu ezinezko txapapotea!), Nunca Mais deialdiari jarraiki milaka boluntario Galiziako kosta garbitzera joan zirenean, Arrasateko lagun batek esan zidana: «Deba ibaia garbitzeko ez dira ba horrenbeste animatzen!». Egia biribila, tamalez. Ingurunearekiko begirunea izan zen jende hori mobilizatu zuena, edo karga politiko handiko unean uneko moda soil bat? Nire ustez, antzera gertatzen zaigu orain klima aldaketaren gaiarekin, esfera guztietan, baita zientifikoan ere, nabarmen biderkatzen ari baitira gizakion eragina abaltzeko ikerketak. Berriki irakurri dut aro geologiko berri bat definitu nahi dela eta ikerlari talde bat horretarako frogak pilatzen ari dela. “Antropozeno” izena hautatu dute, gizakiok eragin dugun egoera berriari garai geologiko estatusa emateko. Gizakiak izandako eragin anitzak hartzen dira kontuan, baina, antza,

material berriek geruza estratigrafikoak sortu izanak markatzen du etapa berriaren hasiera. Ikerlariok oraindik ez dira ados jartzen azken glaziaziotik hona zabaldu den Holozenoaren amaiera non kokatu; iraultza neolitikoan kokatzen dute batzuek, Amerikaren “aurkikuntzan” (*sic*) beste batzuek eta Industria Iraultzan gehienek. Zehazkiago, 1945ean, lehen bonba atomikoaren jaurtiketan kokatzen ei da, gehienentzat, Antropozenoaren hasiera.

Berria niretzat interesgarria izan da irudira ekarri dudana azken aroko denbora geologikoak ikasteko, baina, egiari zor, ez dakusat interes zientifiko handiegirik guk, gure denbora infinitesimala, gure erregistro geologikoan idazteari. Are, azken boladan, jakintza oso modu antropozentrikoan eraikitzen ari dela uste dut, prepotentzia handiz, gizakia unibertsoaren erdigunean kokatuz, orojakile eta omnipotente. Berriz ere, esfera guztietara zabaltzen ikusten nabilen prepotentzia bera, etxean bertan, “badakigu, ez dakite” tankerako hamaika iritzi irakurtzean, adibidez. Umiltasuna botatzen dut faltan, ingurunearekiko –natural eta sozialarekin– begirune falta itzela. Klima bera aldatzeko gai ei gara, baina ez jendartea, gure sistemaxoa. Horixe dago kigu, Antropozenoa! •

Aroa	Periodoa ¹	Serieak/ Garalak	Gertakari nagusiak	Hasiera orain milioi urte ²
Zenozoikoa	Neogenoa ³	Holozenoa	Glaziazio garaien bukaera eta zibilizazioaren sorrera.	0.011430 0.00013 ⁴
		Pleistozenoa	Ugaztun handien sorrera eta estintzioa. Gizaki modernoaren sorrera.	1.806 ± 0.005 *
		Pliozenoa	Gaur egungo glaziazioaren indartzea. Garai hotzak eta klima lehorra. Australopiteziнок jaiotzen dira, hainbat ugaztun genero eta molusku garaikideak.	5.332 ± 0.005 *
		Miozenoa	Moderate climate; Orogenia ipar hemisferioan. Gaur egungo ugaztun eta hegazti familiak bereizgarri bilakatzen dira. Zaldiak eta mastodonteak dibertsifikatzen dira. Belarra nonnahi agertzen da. Lehenengo hominoideak agertzen dira ("Sahelantrophus tchadensis")	23.03 ± 0.05 *
	Paleogenoa ³	Oligozenoa	Klima epela. Eboluzio eta dibertsifikazio azkarra faunan, bereziki ugaztunetan. Garaikideak diren angiospermen dispersioa eta eboluzio nagusia.	33.9±0.1
		Eozenoa	Ugaztun arkaikoak loretu eta hedatu. Hainbat familia moderno ere agertzen dira. Belarra agertzen da. Antartika berriro izozten da eta gaur egungo garai glaziazioa hasten da.	55.8±0.2
		Paleozenoa	Klima tropikala. Landare garaikideak. Ugaztunen dibertsifikazioa hainbat leku ebolutibo primariotan, dinosauroen lekua okupatuz. Lehenengo ugaztun handiak (hipopotamo baten tamaina).	65.5±0.3
Aro geologiko berri bat definitu nahian ari da ikerlari talde bat: «Antropozeno» terminoa hautatu dute berau izendatzeko.				

{ koaderno } **Garazi Goia**

Alter egoak

Beti interesatu izan zaizkit alter egoak; edo, zehazki, pertsona batek alter ego batekin sortzen duen elkarbizitza horren parametroak zein diren ulertzea. Zerk bultzatzen du norbait alter ego bat sortzera? Beldurrak? Ziurtasun gabeziak? Askatasunak? Zoramenak? Dibertsioak?

Charles Bukowski idazleak eta Henry Chinaski alter egoak gauza asko dituzte komunean: alkoholarekin harreman suntsitzailera, maitaleak edota arazoz betetako haurtzaroa. Bukowskiren nobela gehienetan fikzio uki-tuekin deskribatutako bere bizitzaren kontaketa bat aurkitzen dugu eta horrela ezagutzen dugu, hain zuzen ere, autorea Chinaskiren azalean. “Pulp” nobelan –askoren ustetan kontaketa guztiz fikziozkoa den Bukowskiren nobela bakarrean– ere agerpen bat egiten du Chinaskik.

Sylvia Plath eta Esther Greenwood, biak poetak ziren. Oso gaztetan galdu zuten biek aita. Amarekin izandako erlazioan aitaren hutsunea nabaritzen zuten. Arazo psikologikoekin biak, maldan behera joaten hasi zitzairen bizitza. Buruko gaitzen batek jota. Eta, bientzat, deserosoa zen buruko gaitzez hitz egitea. Plathen nobela bakarra idatzi zuen, “The Bell Jar” izenburuduna, *Victoria Lucas* ezizena erabiliz argitaratu zuena. Bere ama-rengandik eta nobelan fikziozko bihurtu zituen beste hainbat pertsonaia errealengandik jasoko zuen erreazioak arduratzen zuten, beste jende bati egingo zion minak kezkatzen zuen. Nobela argitaratu eta handik hilabete bat baino gutxiagora bere buruaz beste egin zuen Plath.

“The Nick Adams Stories” izenburupean, 1972. urtean argitaratu zuen ipuin laburrez osatutako nobelan, Ernest Hemingwayek bere bizitzaren kontaketa egin zuen, Nick Adamsen begietatik ikusia.

Beste hainbat adibide daude eta jakinguraz jarraitu ditut haien idatziak: Philip Roth eta Nathan Zuckerman. J.K. Rowling eta Robert Gallbraith.

Aste honetan, tamalez, David Bowie eta bere hainbat alter egok utzi gaituzte. Ziggy Stardust izan zen ziurrenik denetan entzutetsuena. Bowieren hitzetan, zientzia fikziozko rock musikatik eta antzerki japoniar batetik

ateratako pertsonaia zen Ziggy. Aurpegia zuriz pintatua, ile gorria eta jantzi estranbotiko haiek soinean. Promiskuitate eta gehiegikeriekin hordituta ibiltzen zena. Artista bera bezala. Rock izar bihurtu zen estralurtar bat omen zen, gizateriari itxaropena ekartzeko helburua zuena. Aladdin Sane (ingelesezko *a lad insane* hitz jokoa erabiliz, “zoraturako gizona” hain zuzen) etorri zen hurrena, Ziggyren eraldaketa bat azalduz: Ziggy *bona fide* rock izarra.

Bi musika album kaleratu zituen, arrakasta bat bestearen atzetik. Eta orduan Halloween Jack azaldu zen: begia adabaki beltz batekin estalita, bufanda bat lepoan eta takoi handiak oinetan. Ezin ahaztu, Major Tom, fikzio mundu batera eramandako astronauta, “Space Oddity”, “Ashes to Ashes” eta “Hallo Spaceboy” abestietan agerpena egin zuena. Thin White Duke, beranduago, Bowie eta kabaretaren arteko erlazioa erakutsi zuen: Bowiek Berlinen eman zuen garaian sortua eta Bowieren aburuz izaera gaiztoko pertsonaia. Baina ez zen ho-

David Bowie eta berarekin eraman dituen alter ego horiek guztiak gabe, musika eszena aurreko astean baino pobreagoa da, zalantzarik gabe

rretan gelditu, alter ego gehiago azaldu ziren, Tao Jones, John Merrick, melodia izugarrien erritmoan, hainbeste artistaren inspirazio iturri, hainbeste jarraitzaileen idolo. Ezberdina. Jenioa. Bakarra.

Nire lankide bat David Bowieren semearekin haurtzaroan denbora asko pasatakoa dela jakin dut aste honetan. Agidanez, bien amak lagunak ziren eta arratsalde asko eman omen zituen David Bowieren etxean. “Beste David Bowie bat” ezagutu zuen nire lankideak. «Benetako. Bere bizitza pribatua alde batean nola mantendu duen benetan miresgarria da», esan dit. «Hori da nabarmenduko nukeena. Hainbeste alter egoren itzalean egonda ere, beti pertsona berdina zela. Apala».

Benetako pertsona hori eta berarekin eraman dituen alter ego guztiak gabe, musika eszena aurreko astean baino pobreagoa da, zalantzarik gabe. •



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

«Datorren belaunaldiarentzat Dravet sindromea gaixotasun kronikoa izan daiteke»

Felix Lucas eta Raquel Arbosarekin batera joan gara Intxaurrondo Ikastolara (Donostia). Segituan aterako da Ander, beren semea. Aste honetan bertan bete ditu 11 urte. Irribarrez atera da eta amari lepotik zintzilikatu zaio, betirako bezala. Hizketan ari garen bitartean muxuka jaten du bere ama.

Ikastolan harrera bikaina egin digute. Mimo prestatu digute elkarrizketarako txoko bat, egunero Ander zaintzen duten mimo berdinarekin. Anderrek Dravet sindromea dauka. Hiru urte zituela diagnostikatu zioten eta gaixotasunak eta diagnostikoak Anderren eta bere familiaren bi-

zitzak hankaz gora jarri zituen. Geroztik ikasi dute ezohiko gaixotasun horrekin bizitzeko, nahiz eta beti daukaten erdi hankaz gora egotearen sententzia. «Ander jaio zenean mutiko erabat osasuntsua zen. Osasuntsua eta ederra. Jende guztiak aipatzen zuen zein mutiko polita zen –orain ere halaxe da, bere begi biziarekin eta orezta bihurriekin–. Sei hilabete zituela izan zuen lehen krisia. Anaia zaharrekin egongelan zegoen –orduan sei eta zazpi urte zituzten anaiek– eta bat-batean negar batean hasi zen. Konturatu ginen beso bat ez zuela mugitzen. Korrika batean medikuarengana eramanez guren. Ez zioten garrantzirik eman eta etxera bida-

**RAQUEL ARBOSA
ETA FELIX LUCAS**

**DRAVET SYNDROME
FOUNDATION**

Gaixotasun ezohikoetan oso ezohikoa da Dravet sindromea. Anderri espero gabeko lurrikarak sortzen zaizkio bere baitan, bera eta ingurukoak gogor astinduz.

amagoia.mujika@gaur8.info



li gintuzten. Hurrengo egunean, berriz, baina beste besoan. Eta hor hasi ginen erietxera igo eta jaitsi. Ondoren status bat izan zuen –35 minutu baino gehiago irauten duten epilepsia krisiei horrela esaten zaie– eta izugarri larritu ginen. Uztailaren 24a zen, nire ahizparen urtebetetze eguna. Ez zaigu sekula ahaztuko, ez niri ez ahizpari», hasi da kontatzen Raquel.

«Normalean epilepsia krisiak berez geratzen dira. Dravet sindromearen kasuan, maiz ez dira berez geratzen eta lagundu egin behar diegu. Haurrek konbulzio krisi bat dutenean lehen bi minutuetan eman behar diegu erreskateko botika –hala esaten diogu– bestela status bat izateko arriskua dute, epilepsia krisia izugarri luzatzeko arriskua, bai minutuetan, bai orduetan. Anderrek lehen epilepsia krisia izan zuenean ez zen geratzen, ordu pare bat eman zituen konbultsioekin. Latza izan zen. Ez genekien zer gertatzen zitzaion eta hartatik ez zela aterako pentsatzen genuen, medikuek ere hala esaten zigutelako», jarraitu du Felixek.

Lehen krisi hartan Anderrek sei hilabete zituen. Hiru urte zituen arte ez zuten diagnostikorik izan. Tartekoa, eromena. «Bilatzen, bilatzen eta bilatzen pasa genuen denbora hura. Osakidetza, mediku pribatuak, Bartzelona, Gasteiz, Santander... ez ginen geratu, mediku batetik bestera ibili ginen. Inork ez zekien zer pasatzen zitzaion Anderri. Akaso medikuren batek susmoren bat izan zezakeen... baina garbi inork ez zuen». Felixek uste du ezezagutza hori zeozer aldatu dela, «hamaika urte pasatu dira eta gure fundaziotik saiakera izugarria egin dugu. Kanpainak egin ditugu eskoletan, erietxeetan, pediatrengana jo dugu, neuropediatrengana... helburua da Dravet sindromea entzun eta jendearentzat izena ezagun samarra gertatzea sikiera».

Anderren kasuan, baina, diagnostikoa hiru urte zituela etorri zen, bere gurasoak Osakidetza-rekin gogor jarri eta gaixotasun hori antzemateko test genetiko

«Dravet sindromea jatorri genetikoa duen gaixotasun ezohikoa da, gene batean ematen den mutazio txiki baten ondorio larria. Epilepsia mota larrienetakoa. Lau eta hamabi hilabete artean agertu ohi da eta espero gabeko konbultsio krisiak dira adierazpenik larriena»

«Gaur egun munduko edozein txokotan haur batek Dravet sindromea eduki dezakeela pentsatzen bada, fundazioaren bidez test genetikoa egin dezake, doan. Eta horrela izango du diagnostiko zehatza»

zehatza egitea lortu zutenean. «Test genetiko hori da Dravet sindromea diagnostikatzeko modu bakarra. Proba garestia da. Guk lortu genuen azkenean Osakidetza finantzatzea, baina kasu askotan ez da hala gertatu. Gaur egun Dravet Syndrome Foundation gure elkartearen bidez egiten dira test horiek. Madrilen egiten ditugu. Gaur egun munduko edozein txokotan haur batek Dravet sindromea eduki dezakeela pentsatzen bada, fundazioaren bidez test genetikoa egin dezake, doan. Eta horrela izango du diagnostiko zehatza».

Diagnostiko zehatza ahalik eta goizen izatea garrantzitsua da. Oraingo, Dravet sindromeak ez dauka sendabiderik, baina Anderren gurasoek garbi daukate oso garrantzitsua dela zehatz haurrak zer daukan jakitea. «Lehenik eta behin garrantzitsua da zeri aurre egin behar diozun jakitea. Eta, batez ere, garrantzitsua da Dravet sindromea dutenei kalte egiten dieten botikak ekiditeko. Badira epilepsiaren kontrako botikak Dravet sindromea dutenei kalte handia egiten dietenak». Anderrek hiru urte zituenean, beraz, izan zuten diagnostiko zehatza: Dravet sindromea dauka eta gaur-gaurkoz, ez da sendatzen.

Dravet sindromea –haurtzaroko epilepsia miokloniko larria– jatorri genetikoa duen gaixotasun ezohikoa da, gene batean ematen den mutazio txiki baten ondorio larria. Epilepsia moten artean larrienetakoa da. Lau eta hamabi hilabete artean agertu ohi da eta espero gabeko konbultsio krisiak dira gaixotasunaren adierazpenik larriena.

Ezin da jakin zehatz zerk piztuko duen konbultsio krisia. Maiz, sukarra izateak eragiten du. Emozioek, tenperatura aldaketak, argiaren aldaketak, efektu optiko zenbaitek... ere eragin dezakete. Hala ere, sindromeak tasun oso desberdinak hartzen ditu pertsona batean edo bestean. Orokorrean Dravet sindromeak berekin dakar adimen urritasuna eta krisien ondorioz denborarekin areagotu egin daiteke. Arazo psikomotorrak eta porta-

era nahasmenduak ere eragin ohi ditu.

Dravet sindromea 1970 hamarkada amaieran deskribatu zen eta 2003. urtera arte ez zen izan gaixotasuna diagnostikatzeko test genetiko zehatzik. Horregatik ez da erraza jakiten zehazki zenbat gaixo dauden gaur egunean. Estatistiken arabera, 20.000 jaiotzetatik batean ematen da Dravet sindromea. Estatu espainolean 200 gaixo daude diagnostikatu, horietatik dozena bat inguru Euskal Herrian. Hala ere, pentsatzekoa da diagnostikatu gabeko kasu dezente dagoela eta Estatu mailan 2.000 pertsonatik gorak izan dezakeela sindrome hori.

BOTIKA KONBINATUA

Dravet sindromeak gaur-gaurkoz ez dauka sendabiderik. Tratamenduarekin konbultsio krisiak kontrolatzen saiatzen dira, nahiz eta beti ez duten nahi besteko emaitzarik lortzen, zaila baita gaixotasunak zein joera izango duen asmatzea. «Anderrek egunean bost pilula hartzen ditu, botika konbinatu bat. Baina Anderri ondo doakion konbinatuak kalte egin diezaioke Dravet sindromea daukan beste haur bati. Oso zaila da, probatzen eta probatzen joan behar da asmatu arte. Guk denez, pasatu dugu, askotan aldatu diogu tratamendua eta beti gaude horren gainean», zehaztu du Raquel Arbosak. «Hasierako Osakidetza-ko neuropediatraren ez genuen esperientzia oso ona izan. Hura jubilatu zen eta oraingo medikuarekin oso gustura gaude. Baina, Dravet sindromea daukan beste haur baten amaren bidez Santanderko mediku batengana iritsi ginen eta, egia esan, oso ondo joan zaigu harekin. Hark prestatu zigun lehen aldiz botika konbinatu bat eta argi pixka bat ikusten hasi ginen», segitu du.

«Botika horiek nabarmen moltiplican dute haurraren garuneko martxa. Buruko jardura jaitzen denez, epilepsia krisiak murriztu egiten dira, baina haurraren funtzionatzeko moduan eragin zuzena daukate. Ez du beste haurren modura arrazoi-

tzen; apetitua itzaltzen zaio baztuetan; logura izaten du...», gaineratu du Felix Lucasek.

«Duela gutxira arte ez zen egiten Dravet sindromea diagnostikatzeko test genetikorik eta, ondorioz, ezagutzen ditugun kasu gehienak haurrak dira. Fundazioan, hala ere, badugu 36 urteko pertsona bat sindromea duena. Baina segur aski heldu asko izango dira sindromea dutenak eta artean diagnostikatu gabe daudenak. Italian, esaterako, bertako psikiatrikoetan dauden pertsonen egin zieten test genetikoa, eta, kasu batean, behintzat, testak baieztatu eman zuen. Bertako fundazioko lehendakariak kontatu zidanez, Dravet sindromea zuela jakin ondoren tratamendu egokia eman eta pertsona horren jokaera erabat aldatu zen; izugarri hobetu zen. Pentsa zein garrantzitsua den diagnostiko egoki bat izatea».

Dravet sindromea desberdina da sufritzen duen pertsona bakoitzaren baitan. Eta ez dauka jokabide eredu jakinik. «Sekula ez dugu jakiten noiz etorriko den krisi bat, ezta zergatik ere. Egia da askotan sukarrarekin etortzen dela, horregatik ibiltzen gara beti termometroa aldean dugula. Baina bestela ere etor daiteke, eta beti etortzen da espero gabe eta abisatu gabe», kontatu du Felixek.

Abisatu gabeko lurrikara bat da Dravet sindromea, auskalo zergatik eta auskalo noiz gaixoren gorputza eta inguruko bizimodua gogor astintzen duena. «Denboraldi nahiko ona daramagu. Astean behin edo izaten ditu krisiak. Izan dira bestelako garaiak, krisiak eguneroko gertatzen zirenak. Eta bi hilabete eman izan ditu batere konbultsiorik izan gabe. Hau horrela da», esan du Raquelek.

Dravet sindromeak, bistan denez, gaixoaren eta bere familiaren bizimodua baldintzatzen du erabat. «Erabat haurrari begira bizi gara. Esaterako, ezin gara oporretara joan besterik gabe. Beti ziurtatu behar dugu inguruan anbulatorio bat dagoela eta bertan badutela Dravet sindromearen berri. Bestela, gero- nek bidaltzen diegu informa-


zioa Anderrek krisi bat badu zer egin jakin dezaten. Beti gaude gainean. Ezin dugu bakarrik utzi inoiz». Etxean kamerak dituzte une oro Ander bistan eduki ahal izateko. Eta lo ere horrela egiten dute, begi bat zabalik.

AHALIK ETA BIZIMODU NORMALENA

Dravet sindromea duten haurren familiek normalean bizimodu patxadatsua eta lasaia eskaintzen diote haurrari, ahalik eta erpin gutxien dituen, krisiak ekiditen saiatzeko. Felixek eta Raquelek, baina, bestelako hautua egin dute. Elkarrizketa bukatu orduko, esaterako, izotz jauregira doa Ander patinatzerara. Zaldiekin terapia bat egiten ari-tu da eta hondartzara edota mendira maiz joaten da, nahiz eta badakiten joan-etorri horietan krisiak gerta daitezkeela. «Anderrek bizi duen arrarotasun horretan, ahalik eta bizimodu normalena eskaintzen saiatzen gara. Jende askok esan digu ea erotuta gauden, haurrak bu-rua hautsiko duela patinatzen. Primeran patinatzen du eta bi-kain pasatzen du. Gaixotasunak erabat baldintzatzen du gure bi-zimodua, baina, egoera ezohiko horretan egonda ere, ahalik eta zoriontsuena izan dadin saia-tzen gara», kontatu du Felixek.

Epilepsia krisia ematen badio, konbultsioekin hasten bada, ga-rrantzia handikoa da krisi hori azkar eta egoki kudeatzea. «Bi minutuko epean eman behar zaio botika. Bere inguruan beti dago botika hori, ez da inoiz fal-ta. Bestela, egoera konplikatu egin daiteke. Baina beti iristen zara garaiz. Sekula ez du status bat izan (krisi larriago bat) boti-ka ez diogulako garaiz eman. Krisi larriagoak izan ditu, ba-tzuetan erreskateko botikak ez direlako eraginkorrak izaten. Baina krisia korapilatu egingo dela ikusten badugu, segituan deitzen diogu anbulantzia bati. Krisi baten ondoren Anderrek lo egiten du, eta, normalean, ondo esnatzen da ondoren».

Felix eta Raquel Dravet Syn-drome Foundation elkarteko ki-deak dira (AEBetako fundazioak Estatu espainolean duen orde-zkaritzako kideak) eta oso modu



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

bizian parte hartzen dute fun-dazioaren martxan; hain bere-zia, latza eta ezohikoa den erita-suna agenda sozialean eta bereziki ikerketa zientifikoen agendan sartu nahian.

«Guretzat hasieratik oso ga-rrantzitsua izan da gure egoera berdinean zeudenekin harrema-netan jartzea. Elkar ulertzen du-gu, badakigu zer pasatzen ari garen, eta horrek itxaropena eta

borroka egiteko gogoia ematen dizkizu», nabarmendu du Ra-quelek.

Euskal Herrian dozena bat fa-milia daude, baina gutxi izana-gatik indar handiz egiten dute lan gaixotasunaren berri emate-ko eta dirua biltzeko. «Denetarik egiten dugu. Donostia-Behobia lasterketaren inguruan, adibi-dez, ekimen bat antolatu ge-nuen eta 8.000 euro biltzea lor-

tu genuen. Diru horri esker Te-xasko haur baten eta Britainia Handiko beste baten diagnosti-koak egitea lortu dugu. Niretzat sekulakoa izan zen bi familia horien esker mezua jasotzea». Gaur egunean Osakidetzak aipa-tu test genetikoak egiten du, bai-na gastuak Dravet fundazioak berak ordaintzen ditu.

AEBetako Coloradoko familia batek hasitako bideari esker, iaz-

tik Dravet sindromea duten mundu osoko 150 haur entsegu kliniko batean parte hartzen ari dira, tartean Ander. Hartara, marihuana-estraktu batetik ate-ratako botika batekin ari dira saioak egiten. «Felix eta biok oraingoz ez gara ados jarri. Feli-xek dio Ander hobeto dagoela, biziago bezala. Nik uste dut ezetz», esan du Raquelek.

BIGARREN ENTSEGU KLINIKOA

«Garrantzitsua da laborategi ba-tek entsegu kliniko serio bat egi-tea erabaki izana. Gu oraindik neurria hartzen ari gara, botika batzuk kendu eta beste batzuk gehitu... Entsegua zuzentzen du-ten Madrileko medikuekin eten-gabe harremanetan gaude. Due-la aste gutxira arte, hamabost egunero joaten ginen Madrila kontrolak egitera. Orain atsedena eman digute eta martxoan bueltatu behar dugu, baina aste-ro ematen diogu informazio ze-hatza laborategiari», jarraitu du Felixek.

Itxaropentsu kontatu dute-nez, udaberrirako bigarren en-tsegu kliniko bat espero dute, Dravet sindromeari zuzenduta-ko botika berri batekin. «Eta ba-dirudi bigarren entsegu horren atzetik asko-asko gerturatu gai-tezkeela sendabidera. Hori esa-ten digute», kontatu dute.

Egia esan duela bost urte mar-txan jarri zenetik Dravet sindro-mearen fundazioak egin duen bidea ez da makala. «Estatisti-kak eta Dravet sindromeak dau-kan intzidentzia maila kontuan hartuta, lauhun bat urte be-harko genituzke diagnostiko ze-hatz bat eta bi entsegu kliniko lortu ahal izateko. Guk bost ur-tean lortu dugu. Badirudi biga-rren entsegu hau eraginkorra izan daitekeela haurren %70 in-gururentzat eta sendabidea ger-tu egon daitekeela. Sekulakoa da horretan parte hartzea».

«Etorkizuna existitzen da An-derrentzat eta Dravet sindro-mearen haur guztientzat. De-nak sentitzen ditugu gure seme-alabak balira bezala. Dato-rren belaunaldiarentzat Dravet sindromea gaixotasun kronikoa izan daiteke eta horretan parte hartzea sekulakoa da».



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

ERRETIRATZEKO ORDUAN ABIATZEN DIRENAK

Gehienak etxera erretiratzen direnean, badira lanera abiatzen direnak. Gure portuetan ilunabarrak agintzen die arrantzaleei itsasora abiatzeko ordua. Ilunak, hotzak eta gauak gainontzekoak etxeko epelera uxatzen dituen ordua, hain juxtu. Azkena etxeratzen denak kanpotik ikusten du besteen etxeko epela. Argi hori epelak han-hemenka piztuta. Batzuk isiltasunean afaltzen; besteak iskanbilaka haurrak bainearatik ezin atera; besteak xuxurlaka hizketan, dagoeneko lo dagoena ez esnatzeko; liburu bat irensten argi txikiarekin besteak... Arrantzaleek ere badute argi hori epela, zeruak pizten diena, gauero berria eta gauero desberdina. Zeruaren koloreak ez direlako Pantonean kabitzen. amagoia.mujika@gaur8.info

GAUR8



ireki gure leihoo

Kontrabandoan zoriona pasa

Maider Iantzi

Mugak aurkitzeak eta ikertzeak badu zerbait kitzikagarria eta beldurgarria. Izan ere, zeinen sakona eta iluna den irudizko marra! Gure barrenean bertan ditugu mugarri batzuk. Ez dakigu ongi nork eta noiz jarri zituen hor. Gure buruak? Bertzeek? Bizitu edo sufritu ditugun esperientziek? Gehien-gehienetan eurentaz atzentzen gara, eta hagitz-hagitz gutxitan –ematen duen poz eta indarrarekin sarriago izan beharko litzateke– bota egiten ditugu. Orduan bide berriak zabaltzen zaizkigu eta “zer ote dago bertze aldean?” galderari erantzuteko moduan izaten gara pixkanaka-pixkanaka.

Mugaldeko herriak bitxiak izan ohi dira, jende desberdinaren nahasketaz gain, denon imaginarioetan daudelako mendiak, ibaiak eta zeruak urratzen zituzten kontrabandisten istorioak. Errealak ala kontaketa bakoitzean haziz joandakoak diren, horrek zer axola dio.

Irudika dezakegu baserri zahar bat mugak alderik alde zeharkatzen duena. Alde batean, sukaldea, komuna, logela bat eta behitegia ditu; bertzean, sala, bi logela eta oilategia. «Alaba atzerrian bizi da», azal dezake beratar batek Ibardingo puntan. «A bai? Non?» itaundu eta «Urruñan» erantzunen digu. «*Pardon*, non gaude hemen, Frantzian ala Espainian?». Erantzunak ez

ditu maletategiak Ricard kaxaz eta tabakoz gainezka eramanen dituzten bezeroak aseko, baina sangria edalontziak bete eta bete dabilen zerbitzari gaztea harro geldituko da atera zaizkion hitzekin: «Euskal Herrian!».

Mugarritz mugarri paseatzen, garai batean marra ikusezin hauek gaindiezinak zirela konturatu gara, eta gaur egun oraindik beren zulo sakon eta ilunetan jendea irentsi eta akabatzen ari diren mugez oroitutua gara. Buru gaineratik pasatzen zaizkigun hegazti migrariei begira gaude, Edu Zelaietaren “Mugaldekoak” liburuko poema baten zati bat ezpainetan: «Kontrabandoan zoriona pasa eta mugalaria izan». •

Cristina Borboikoa eta Iñaki Urdangarinen birgizarteratzea

Xabier Mikel Errekondo

Iragan astean Cuatro telebista kate sensazionalistatik deitu zidaten Noos kasuaren epaiketa hastear dela-eta elkarriketa bat egiteko. Harrigarria badirudi ere... etxera deitu zuten eta, nire alabaren erreflexu bizien ondorioz, bigarren hitza gurutzatu zutenerako telefonoa nire eskuetan nuen. Politika publikoaren erreflexuak dagoeneko herdoildurik izanagatik ere, zentzuaren zantzu ñimiñoenak bultzatuta ez nuela ezer komentatzekorik bota nien. Uff! Eskegi ondoren, ordea, penetan geratu nintzen... gustura errepikatuko nizkielakoan taberna giroko ohiko birao parrastadak. Baina, hori bai, ustelkeriaz zigortuak izanez gero aldarrikatzen nuela arren

bikotea ez dispertsatzeko eta ez urruntzeko. Baina, nago, Estatua jada tematuta egonen dela Cristina eta Iñakiren berehalako birgizarteratzearekin, eta beharrik izanez gero Ajuria Enetik eratorritako neurriarik ankerrenak ere aplikatzeko prest. Bekatari lapur borboitarren heziketa zintzoa ezaguna zaigu, aita nagusiak berriki erakutsi moduan: nahi duen guztia egin ondoren, haur-damuarekin barkazioa... Aldiz, Iñakirena? Jatorri eta izen barbarokoa, Sabino Aranaren odolekoa, kilokada harrotasunek lepoa luzatutakoa. Biek ala biek talde arriskutsua osatzen dute. Bonnie & Clyde Taldea.

Birgizarteratzearen espezialistek Erregearen arrebari damuaren entsegua

ehunka alditan errepikaraziko zioten dagoeneko, baina, halere, borboitarren artean ardi beltza bihurtzeko arrisku txikiena ere uxatzeko neurri guztiak abian jarriko dituzte. Ez dira fio. Espetxean elkarren hurbil edukiz gero, bikotekidearen atzaparretan legoke, bi aldiz preso... Noos auziaren ebazpena idatzita dago: «Zigorra- ren helburua birgizarteratzea izanik eta Cristina Borboikoaren heziketa zein aurrerakariak aintzat hartuz bere erabakiak askatasunez har ditzan, espresuki debekatzeko da taldeko kideak espetxe berean egotea. Zehazki, Urdangarin jaunak zigorra Salto del Negro espetxean bete dezan gomendatzen da». •



La Basu, Martzana kaian. Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

infraganti LA BASU

Emakumea, euskalduna eta rap kantaria, horixe da La Basu. «Rapa da nire borroka moldea», dio ozen. «Rapak ematen dit ahotsa hip hoparen munduan emakume guztiek merezi duten lekua bilatzeko», aldarrikatzen du, eta, bide horretan, euskara du bozgorailu, «hizkuntza gutxitu baten borroka, herri bat eta bizitzeko era bat» irudikatzea helburu.

Esango nuke La Basu rap kantariaren aurkezpen gutunik onena “Aire es vida” bere azken albumean Aneguriarekin batera egindako “Trakamatraka” kantuarien bideoklipa dela. Iritzi bat baino ez da, noski, baina mezuan, erritmoan eta

formetan izugarri iradokitzailea izateaz gain, La Basuren izaeraren, ibilbidearen eta errealtatearen hainbat osagai biltzen dituela iruditzen zait. Nor da La Basu rap kantari euskalduna? Rapeatzen ikustea izan beharko litzateke lehen ariketa. Behin hori eginda, goazen artikuluko netan bigarrena egitera, La Basu

beraren hitzetan nor den ezagutzera, bere musikarekin munduari zer esan nahi dion jakitera. Estatu frantsesetik iritsi berri dela izan du GAUR8k berarekin hitz egiteko parada.

Aipatu dugu gaur zertan ari-tzen den, baina atzera begira, esan dezagun La Basu 1983ko urtarrilaren 6an jaio zela, Barakaldon, Elena Caballero bezala. Baina azken urteotan musika eszenatik harago heldu da bere ezizena: *La Basu*. «Elena Caballero izena ordezkatu duten denbora eta egoerak dira La Basu», adierazi du. Inoiz kontatu du gaztetan kontzertu batean sartzeko zain zela edukiontzi baten gainera igo eta kantatzen hastean jarri ziotela ezizena. Egun, bere burua Elena Caballero zein La Basu bezala identifikatzen du, biek jada bat egin dutela sentitzen baitu.

Egungo euskal raparen erreferente nagusietakoa Etxebarriko San Antonio auzoan hazi zen. Neskato alaia izan zela gogoratzten du –«eta izaten jarraitzen dut», dio–, «bat egiten duen familia batean hazi nintzen, eta oso ikasle ona nintzen». Baina Etxebarrin, garai hartan, hip hopa ez zen batere ezaguna. «Horregatik, nire adinekoen artean atzamarrez seinalatzen zuten horietako bat nintzen, ez ninduten ulertzen», azaldu du.

«NIRE BORROKA ADIERAZI»

Bilbon bertan ere gauzak ez ziren oso ezberdinak. «Ez nuen inguruan hip hoparen munduarekin harremanik zeukan inor. Salas de los Infantes Burgosko herrian igarotzen nuen uda, eta bertan grafitiak margotzen zituen tipo bat ezagutu nuen. Pare bat kasete utzi zizkidan, eta, entzun nituenean, berehala jakin nuen hori zela egin nahi nuena: erritmoekin eta hitzekin jolastu, munduari nire borroka adierazi ahal izateko».

Hip hopaz hitz egitean, galde-tu diogu euskal hip hopik bada-goen. Azaltzen duenez, «hip hoparen kultura lau osagaik osatzen dute: rapak, grafitiak, *breakdance*-ak eta *turntablism*-ak». Kultur espresio horretan, rapa hip hoparen musika dela

esan daitekeela argitu du. Euskal Herrian bizi duen egoerari buruz, gurera berandu heldu zela baino indartsu sartu dela dio.

goeko hamarkadaren bukaer-
an, Jungla Urbana emakumez-
ko rap taldea sortu zuen La Ba-
suk. 2001ean, bere lehen maketa
argitaratu zuen bakarka: “# k”
zuen izena eta bost kanta zi-
tuen. «Bilbora etortzen ziren
talde esanguratsuen aurretik jo-
tzeko aukera eman zidan», go-
goratu du. Ondoren, osasun ara-
zoek hamar urtez mantendu
zuten agertokietatik urrun. Itzu-
lera 2014an izan zen, hiru kan-
tuz osatutako “Remixes” lana-
ren argitarapenarekin. Iaz beste
lan bat kaleratu zuen: “Aire es
vida” diskoa, jada 800 kopia bai-
no gehiago saldu dituen.

DISKO BERRIA, EUSKARAZ

Gaixotasun gogor bati aurre
egin ondoren, denbora galdu
izanaren sentsazioa gainetik
kendu ezinik, “Aire es Vida” argi-
taratu zuen La Basuk, bere bu-
ruarekin eta ingurukoekin sen-
titzen zuen «zorra» kitatzeko. Ez
zuen agertokietara itzultzea
pentsatuta, «baina eskuetatik
alde egin dit erabat egoerak». Eta orain jada ez du geratzeko
asmorik: disko berria prestatzen
ari da euskaraz, «baita beste
gauza interesgarri batzuk ere.
Ilusioa berreskuratu dut eta ge-
ratzeko bueltatu naiz».

Behin disko berria aipatuta,
hitzetan zentratu gara. Berea
«oso rap pertsonala» dela dio.
«Asko hitz egiten dut bai nitaz
bai inguratu eta arduratzen
nauenaz. Nire ideiak defendat-
zen ditut: askatasuna, herria,
monotoniari eta kritikei buruz-
ko ikuspuntu ezberdinak azal-
tzen ditut... Ez nuke inoiz ezagu-
tzen ez dudan zerbaiti buruz
hitz egingo», adierazi du.

Hizkuntzaren aldetik, Bilbon
raparen mundua nahiko itxia
izan dela onartu du; euskal kul-
turekin ez du harreman estu-
rik izan orain gutxira arte, eta,
hala, euskaraz eta gazteleraz ari-
tzen direnak ez dira nahastu.
Kontatu duenez, «orain poliki-
poliki gauzak aldatzen ari dira,
publikoa zabalagoa da. Lortu
dugu rock, reggae eta punka en-



Osasun arazoez hamar urtez mantendu dute agertokietatik kanpo Elena Caballero. Orain, gogo biziz bueltatu da. Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

tzuten duenak rapa ere entzutea. Gazteteetara eta beste espazio batzuetara heldu eta hainbat aurreiritzi alboratu ditugu».

La Basuk bihotzean gordetzen dituen kontzertuen artean, neskatok bat zela Selektah Kolektiborekin emandakoa gogoratzen du bereziki. Gogoan du ere Jungla Urbanarekin emandako kontzertu bat, abeslarietako bat hitzik gabe geratu baitzen eta ordu erditik gora inprobisatzen eman behar izan baitzuen. Oroitzapenak, baina, asko dira: iaz Bartzelonan La Rima hip hop jaialdian aritu izana, Donostiako Kortxoenea gaztetxea bota aurretik bertako teilatuan aritzea, Bilboko Aste Nagusian Kaskagorriren txosnan abestea...

«HAU DA RAPAREN MOMENTUA»

Rap abeslaria, sortzailea, euskalduna... eta emakumea, inguruan duen errealitateari zorrotz begiratzen diona. Horregatik, raparen munduan matxismoa ohi-

koa dela eta rapak nagusiki gizonen mundua irudikatzen duela salatu du. «Ohituta gaude autogaresti batean doan eta ondoan bikiniz jantzitako bi neska dituen rap abeslari beltz tipikoa ikustera», onartu du. Zaila bada ere, «pixkanaka» aurrerapausoak ematen ari dira arlo horretan ere, eta frogatu da nabarmendu duenez ez dela beharrezkoa repeatzerako orduan inor iraintzea bera baino hobea zarela erakusteko.

Azken hiru urteotan Eskina Femenina ekimenean aritu da La Basu Aneguriarekin batera, hip hoparen kulturaren emakumeen lana sustatzeko helburua-

«Kortxoenea eraisteko mehatxupean zela bertako teilatuan egin genuen emanaldia oso hunkigarria izan zen, baita Bilboko Aste Nagusian Kaskagorriren egindakoa ere»

Eskina Femenina proiektuaren sortzaileetako bat da Aneguriarekin batera. Azken hiru urteotan hip hoparen kulturaren emakumeen presentzia sustatzeko gogor ari dira lanean

rekin. «Sare sozialetan emakumeen presentzia indartzeko hasi ginen, erreferenteak sortu asmoz», gogoratu du. Idazketa tailerrak ere eskaini dituzte emakume zein gizonentzat. Izan ere, «interesgarri» ikusten dute

gizonek ere «raparen munduan emakume izatea zer den» ezagutzea. Ibilbide horretan, saio bat egin dute Emarock irratia, eta hiru jaialdi antolatu dituzte «emakumezkoek agertokia hartzeko».

Bazterfest bi eguneko topaketa ere egin zuten, eztabaidak eta kontzertu bat antolatuz. Kontzertuan, La Basu eta Aneguriaren ondoan, Donostialdeko

Nizuri Tazuneri eta Estatu espainoleko Syla rap abeslariak ere aritu ziren. «Oinarrizko helburua emakumeak agertokietan izateko borrokatzen jarraitzea da. Mugimendu honi esker emakume gehiagorengana heldu nahi dugu eta egiten dugun dena zalantzan jartzeko joera alboratzea ere lortu nahi dugu».

Bitartean, gero eta gehiago rapeatzen du Euskal Herriak. Gurean, egungoa «raparen unea» dela uste du La Basuk, «oraindik egiteko asko badago ere». Argia du, baina, mugimendu honen hazkundea «hasi besterik ez» dela egin, eta horren adierazle du euskal kulturaren erakustoki erraldoia den Durangoko Azokan bizitakoa: «orain dela urte batzuk pentsaezina» zena, emakume bat bere rap diskoa saltzen eta beste asko gure rap diskoak defendatzen. «Beraz, hau da gure unea». •

Nerea GOTI



Iratxe Esnaola - @puntueus
Informatika ingeniaria

Androiden monopolioaz

Teknologien sektoreak beti erakutsi du monopoliorako joera. 1969an IBM izan zen, uneko hardware eta software guztia kontrolatzen omen zuelako.

Ameriketako Estatu Batuetako Monopolioaren Aurkako Agentziak salatu zuen eta hamahiru urteko prozesu juridikoa izan zen. Azkenean, atzera bota zen eta ez zen IBMren aurkako sententziarik izan. Baina agerian geratu zen, lehen aldiz, teknologien sektorearen izaera.

2001ean Microsoften txanda izan zen. Honek ere salaketa jaso zuen. Ordurako, Microsoftek, ordenagailu pertsonalen eremua dominatuta zeukan. Erabat dominatuta: oso konplikatu zen Windows gabeko ordenagailu pertsonal bat aurkitu eta erostea.

Gaur egun, joera monopolistikoa Androiden eskutik doa (Google, alegia). Androidek dominatzen du smartphoneen eremua. Eta smartphoneak dira, hain zuzen, informaziora iristeko gailu edo plataformarik erabilienak. Androidek merkatuko kuotaren %80 eskuratu du. Apple izan daiteke bere lehiakide nagusia, iOS sistemarekin, baina ez du merkatuko %20 ere konkistatu. Gainontzeko aukerak hondarrak dira, Windows Phone tartean delarik merkatuaren %1,7 eskuratuta. Staya Nadella, Microsofteko zuzendari exekutiboak berak aitortzen du: «Windows Phone sostengaezina da».

Smartphoneen kasuan, gainera, sistema eragilea kontrolatzeak, aplikazioen «denda» kontrolatzea dakar berarekin. Alegia, sistema eragilea kontrolatzen duenak ezartzen ditu arauak, eta berak erabakitzen du zein aplikazio eskainiko diren bere «dendan». Hortaz, Android gainean funtzionatzen duten smartphone horietan guztietan, Play Store dendan zer eta nola eskainiko den Google berak erabakitzen du. Hortaz, nahiko balu, atea itxiko lieke zenbait aplikazio edo enpresari. Eta, testuinguru horretan, gainontzeko enpresak, aplikazioak garatzen dituztenak, Google berarekiko erabat menpekoak dira.

Menpekotasun horrek sortzen duen panikotik, Facebook alternatiba berririk ikertzen hasi da, Google enpresari aurrea hartuz, badaezpada, inoiz Play Storean bere aplikazioak ez eskaintzeko erabakia hartzen badu ere (Whatsapp, Instagram eta Facebook bera, besteak beste: https://en.wikipedia.org/wiki/List_of_mergers_and_acquisitions_by_Facebook).

Berez, ez du agertoki erreal bat ematen eta Googlek erabaki hori nekez hartuko lukeela dirudi (Facebook eta Google arteko gerra deklarazio bat izango litzateke, ezta?). Baina Googlek jada blokeatu ditu zenbait aplikazio, Play Storeko atea itxiz. Tartean dira, besteak beste, «publizitatearen blokeorako» aplikazioak (bere negozio-eredua auzitan jartzen dutenak). Eta erabaki horiek, kontrol erakustaldi horrek, menpekotasun horren gaineko beldurrrak areagotzen ditu. Eta ez dago enpresarik, besteen menpeko izan nahi duenik.

Microsoftek, zegokionean, bere buroia defendatu zuen, adieraziz, munduko erabiltzaileek masiboki desiratzen

zuten sistema eragilea sortzea ezin zela salaketa baten oinarria izan. Egun, Googlek, antzerako zerbait dio: Androiden merkatu kuota dominantea ikerketa askoren fruitu dela, horrek balio erantsi handiagoko proposamenak egiteko aukera eskaintzen diola, eta ez dela mehatxu bat, mugikorren ekosistemaren garapena hobetzeko lagungarri dela baizik.

Izenak izen, monopoliorako joera berriz ere errepikatu da. Eta modu bikoitzean gainera. Google bilatzaileak merkatuaren %90 kontrolatzen du Europan eta Androidek %80 mundu mailan. Iazko apirilean Europako Batzordeak salaketa jarri zion bilatzaileari, posizio dominante horretatik, bilatzailearen emaitzak bere komenentziara erakusteagatik. Eta Androiden gaineko ikerketa ere zabalduko zuela adierazi zion erraldoi amerikarrari. Ea zertara iristen den.

Teknologien sektoreak monopoliorako joera izan du beti. Baina horren aurka egin diren saiakera guztiek, ez dute emaitza positiborik ekarri oraingoz. Ea. •



Gaur egun joera monopolistikoa Androiden eskutik doa, Google, alegia.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Kutxateka. FONDO FOTOCAR. RICARDO MARTIN

«EUSKAL ARRAZAREN ARIMA ARTISTIKOA»

1935. urteko urtarrilaren 20an Donostian Bertsolarien Eguna izan zen, Eusko Gaztedik eta Euskaltzaleak antolatuta. Ekitaldian hogeitabertsolarik parte hartu zuten eta eguna 11.00etan abiatu zen jendez lepo betetako Poxpoliña aretoan. Garaiko "El Día" egunkariak gaztelaniaz argitaratu zuenez, «*el día del bertsolari fue una manifestación radiante del alma artística de la raza vasca*». Egunkari horrek kontatzen zuenez, bertsolariak bi ilaratan eseri ziren eta eguneko heroiak izan ziren. «*Los humildes y sencillos aldeanos comenzaron a realizar una labor admirable y asombrosa. De aquellas cabezas tocadas con la boina democrática, de aquellos labios ignaros encuadrados en caras tostadas por el sol, brotaron bertsos y más bertsos llenos de ingenio, sagacidad y no pocas veces de poesía*», kontatzen du garaiko kronika ederrak.

Txapelketa izan zen eta hiru ordu iraun zituen. Azkenean txapela Basarri zarauztarrantzat izan zen. Saria, 100 pezeta eta «Udarregi iratzargailu bikain bat». Saria Aitzolek eman zion Basarriri, epaimahaiko kidea zelako. Eta saioaren ondoren izandako bazkarian Euskaltzaleak elkarteko lehendakariak hartu zuen hitza, Telesforo Monzonek.

Goian agertzen den argazkian, ezkerretik eskuinera ageri dira, aurreko ilaran, Lujanbio, Txapel, Txirrita, Zepai eta Basarri. Eta atzeko ilaran, Erauskin, Mintegi, Sarasola, Nekezabal, Tellaetxipi eta Abarategi.

GAUR8

ireki gure leihoa

